



Azken bulkadaren zain

Bakaikuko Herriko Denda zabaltzeko 100 bazkide behar dituzte festen aurretik / 5

Josefina Arregi
klinikak
etorkizunerako
hainbat egitasmo
ditu / 6

Gorka Izagirrek bere
bederatzigarren
Tourra du aurtengoa.
Oraindik gorabeherak
aurreikusten ditu / 10

Babestutako Gizarte
Enpleguaren bidez 30
sakandar lan
mundurako trebatzen
ari dira / 7

Ander Erice bigarren
sailkatu zen
Ehunmilak ultra
trailean, meritu
handiz / 15

Ergoienako Udalak
hirigintza plana onartu
ondoren, hau bi
hilabetez jendaurrean
izanen da / 9

Deserrite taldea
diskoa prestatzen ari
da, zuzenekoekin
jarraitzen duen
bitartean / 23

Sakanaoptika
optometria • audiolometri
hantailgiatologia

%30 EKO
DESCONTUA
EGUZKITAKO
BETAURREKOETAN

Intxostia zeharbidea 10
(Aitsasu)
948 563 128
www.optikasakana.com

Maidar Betelu Ganboa URDIAIN / IHABAR
Antton Zelaia Etxarri urdiaindarra eta Mikel Astiz Erro ihabardarra maiatzaren 28an abiatu ziren Erromatik eta ekainaren 8an iritsi ziren Sakanara, bizikletan. Aurretik, Bicicletas Sin Fronterasen Gobernu Kanpoko Erakundearen aldeko crowdfunding kanpaina solidarioa abian jarri zuten, Senegalerako 25 bizikleta erosteko, bertako gazte txoek urrutitu zituzten ikastetxetara bizikletan joan-etorria egiteko aukera izan dezaten. Azkenean, bi helburuak lortu zituzten: Erroma eta Sakana bizikletaz lotzea, 11 egunetan, eta crowdfundingean Bicicletas Sin Fronterasek Senegalerako 25 bizikleta bidaltzeko diru ekarpena lortzea. Esperientziarekin "oso pozik" dago bikotea.

Fiumicino, abiapuntua

Italiara hegazkinez iritsi ziren, Erromatik 30 kilometro dagoen Fiumicino aireportura, bizikletak zamategian bilduta zeudela. "Justu egun bat lehenago lortu genuen crowdfunding kanpainan Bicicletas Sin Fronterasek Senegalerako 25 bizikleta bidali ahal izateko diru kopurua: 4.500 euro. Horregatik, oso kontentu ekin genion gure erronkari, eta oso eskertuta gaude kanpainan parte hartu duten guztiekin" aipatu du Zelaia. Guztira, 4.896 euro jaso zituzten kanpainan, GKE-ra bideratu zituztenak.

Kalkuluak

Bi asteko oporrak hartu zituzten erronka egin ahal izateko. "1.700 km inguru zirela bagenekien, baina, azkenean, gehiago atera ziren. Egunean 150 km inguru eginda 12-13 egunetan Sakanara iritsiko ginela aurreikusten genuen, eta kalkulu horiekin ibili ginen. Hurrengo kanpalekua edo herria 170 km-ra bazegoen, distantzia luzatzen genuen. Laburtu, soilik bukaera aldera egin genuen, asko aurreratua genuelako. Azkenean 11 egunetan osatu genuen erronka" dio Zelaia.

Astiz eta Zelaia kirolari peto-petoak dira, eta gustura osatu



Mikel Astiz Erro eta Antton Zelaia Etxarri abenturaren hasieran, Vatikanoko San Pedro basilikaren aurrean. UTZITAKOA

Erroma-Sakana, 11 egunetan

Antton Zelaia eta Mikel Astizek erronka solidarioa arrakastaz burutu zuten: Erromatik atera eta Sakanara bizikletaz iritsi ziren, 11 egunetan, eta Bicicletas Sin Fronterasen aldeko crowdfundingean Senegalerako 25 bizikleta bidali ahal izateko dirua lortu zuten

dute bidea. Nekea behin etxera iritsita sumatu omen zuten biek, bidean ez. Gutxi gorabehera aurreikusten zuten planteamendua bete zela diote, egunen eta km kopuruen aldetik. "Behin 185 km egin genituen. GPS-a bizikleta moduan jarri genuen, baina au-

**SENEGALERA 25
BIZIKLETAK
BIDALTZEKO DIRUA
LORTUTA EGIN ZIOTEN
ERRONKARI, POZIK**

tobia batera bideratu gintuen. Jakina, ezin ginen autobian bizikletarekin sartu, eta atzera egin behar izan genuen, nahikotxo, eta partzelaria eta bide txarretatik ibili behar izan ginen" kontatu du Zelaia. GPS-arekin ere kontuz ibili beharra dago, beraz. Gehienbat Google Maps aplikazioa erabili zuten, baina tarteka Wikiloc eta bestelakoak.

Erromako kaosa

Lehendabiziko etapa Fiumicino aireportutik Ladispolira egin zuten, Erromatik pasatuz. "Bizi-

kletarekin pasatu ginen Erromatik. Koliseoa eta San Pedro plaza ikusi genituen, eta hiri turistikoa izaki, jendetza zegoen, Koliseoan bereziki. Erroma erokeria absolutua zen: trafiko izugarria, jendetza... Dena den, bizikletan ongi moldatu ginen"

**ESPERIENTZIA
EDERRA ETA BIKAINA
IZAN DA BIONDAKO;
AURREIKUSITAKO
PLANGINTZA BETE DA**

oroitu du Zelaia. Kanpinetan hartzen zuten atsedeen gehienetan, "izan ere, horrenbeste kanpin daude bertan. Dutxa hartu, bestelako zerbitzuak erabili eta bizikletak ere seguru zeuden".

Italiako kostaldetik egin zuten aurrera: Pisa -dorrea polita omen da, bitxia-, Genova.... Frantziara sartu eta Kosta Urdinean aurrera egiteko: Niza, Monako, Cannes... Bizikletan bidaiatzen ez ziren bakarrik. "Zikloturista asko daude, hemen baino gehiago. Batez ere jende heldua, gazte gutxi. Heldu asko zegoen bizikleta elektrikoarekin eta alfortxeekin bidaiatzen. 60 urtetik gorakoak, 70 urtekoak ere. Europa iparraldean eta Frantzia kirola egiteko eta bizikletan mugitzeko beste ohitura bat dago eta uste dut gehienak hangoak zirela, ongi prestatutakoak. Gu kirolariak gara eta martxa onean ibili ginen, baina euren lasai zihoazen, disfrutatzen, distantzia laburragoak egiten" azaldu du Zelaia.

Herri eder horietan gelditzeko tentazioa izan ote zuten galdetuta, ezetz diote biek. "Bidea egiten disfrutatzen dugu guk, bizikletan ibiltzen. Dena den, arratsaldeko bostak edo seiak aldera iristen ginen eguneko helmugara, eta denda muntatuta bueltatxo bat ematen genuen" azaldu dute.

Bizikletarekin ez dute sustorik izan. "Bueno, Mikel Nizan erori egin zen" dio Zelaia. "Ointokiak berriak ziren. Bidegurutzetara batean ez nuen ointokia atera, eta erori nintzen. Baina ez nuen aparteko minik hartu. Nizan bainutxo bat hartuta konpondu genuen arazoa, toki ikusgarrian" erantzun du Astizek, irribarrez.

Kosta Urdina

Italiatik Frantziara sartzean paisaia ez zen apenas aldatu, kostan jarraitzen baitzuten. "Jendea bai, frantziarrak serioagoak direlako", diote. Antton Zelaia turismoa ikasi zuenez, ingelesa eta frantsesa ikasi zuen eta bi hizkuntza horiekin moldatu ziren bidaian. "Italiera berehala ulertuko gurela uste



EGOKI
Ventanas PVC Leihoak
www.ventanasegoki.com

Arkinoturri Industrialdea • Olazti

GIDARIDUN LEHIO BERRIAK
Mugarik gabeko estetika modernoa

Erakusketa: Olite kalea 16 • Iruñea



nuen, baina hitz solte batzuk izan ezik, ez genuen tutik ere ulertzen. Ingelesez moldatu ginen Italian" dio urdiaindarrak. "Honekin edonora joan zaitezke. Zuk hitz egin! esaten nion nik, edonora iristen ginenean" aitortu du ihabardarrak.

Italian eguraldi oso ona izan zuten. "Oro har, eguraldi ona izan genuen bidaietan. Soilik hiru egunetan egin zuen euria, azken aurreko egunean, Nafarroara sartu ginenean (kar, kar...) eta Italia eta Frantzia muga horretan. Baina kostan hotzik egiten ez zuenez, xira jartzearekin nahiko" aipatu dute.

Pirinioak ezkerrean

Kosta Urdinean, Monakotik aurrera jarraitu eta Marseillara eta Montpellierrera iritsi ziren. Beziersetik gora hasi ziren, Pirinioak alboan zituztela, haiei jarraiki iparralderantz, Garona ibaia gora, Canal du Midi segituz. "Une oro Pirinioak ikusten genituen ezkeraldera begiratzuz gero. Hor hasi zen kontrako haizea, Toulouse bidean" gogoratu du Zelaia.

Eguraldiaren aldetik, okerre-na hori izan zen, haizearen kontra ibili behar izan zuten tartea. "Gogoratzen dut egun osoa haizearen kontra ibili ginela, eta azken sei orduak mortalak izan zirela" dio Zelaia. "Carcasona aldean izan zen, Toulouse bidean, eta hori euria baino okerragoa izan zen" ados dago Astiz. Gainera, egun horretan ibilbidea luzatu zuten. 175 km inguru egin zituzten, "kanpinarengatik eta berez burugorrrak garelako. Haraino iritsi behar genuela esan genuen, nola edo hala, eta haraino iritsi ginen. Baina kristoren paliza hartu genuen, hori ere esan beharra dago" aitortu dute, irribarrez.

Kostaldea atzean utzita, ibilbidea bera gogortu egin zen, orografiagatik. "Garona ibaia Mediterraneoan hiltzen da, eta guk kontrako bidea egin genuen, azpitik gora. Hasieran haizea kontra genuen, baina gero alde jarri zitzaigun" oroitu du Astizek.

Orreagatik

Ibilbidean gora egin zuten. Nafarroara Orreagatik sartu ziren, erromesen moduan, Ibañeta portutik. "Eta hor, euria eta hotza. Etapa Burgin despiditu genuen, eta landetxe batean hartu genuen ostatu. Ze gustura!" oroitu dute

irribarrez. Gorputzei merezitako omenaldia.

Esperientzia bikaina

Erroma eta Sakana bizikletan lotzeko erronka solidarioa esperientzia oso ona izan dela diote biek. "Polita izan da. Orain arte bakarrik egin izan ditut halako bidaiak, baina Mikelekin gustura ibili naiz. Mutil jatorra da. Bidaia ona, eta esperientzia bikaina izan da" azaldu du Zelaia. Iritzi berekoa da Astiz. "Ongi moldatu gara" berretsi du.

Zelaiak ez zuen Italia ezagutzen, eta oso polita iruditu zaio. Baita Frantzia ere. Astiz duela bizpahiru urte egona zegoen Italian, Cinque Terren. "Pena eman zidan Anttonek hiri horiek ez ikustea, oso politak direlako, baina goitik ikusi genituen, pasatzen ari ginela. Izan ere, dena ezin da. Esaterako Monako. Hau ere goitik ikusi genuen. Jaistea ordu bat litzateke, igotzea beste ordu bat... ezinezkoa zen".

Gutxien gustatu zaiena Marseilla izan da. "Izugarri handia da, ez nuen uste horren handia izango zenik. Kontua da ostiralean iritsi ginela, une txarrean, eta lo egiteko tokia ez genuela aurkitzen. Leku oso bitxietatik pasatu ginen, ghettoetatik. 19:00etan oraindik lo egiteko tokirik gabe jarraitzen genuen, eta hurrengo herrira joateko hiri-inguruko kanpoaldeko auzoetatik pasa behar izan ginen. Beldur pixka bat pasa genuen, erretako autoak, arropa lurrean... halakoak ikusi genituelako. Baina aurrera egin eta gau hartan ongi egin genuen lo, hotel batean. Sekulako gosari onaz gozatu genuen hurrengo egunean" oroitu du Zelaia.

Zikloturismoa, gomendagarria

Zikloturismoaren defendatzaileak dira dira biak. "Bidaiatzeko go-

"ZIKLOTURISMOA EGITERA ANIMATZEN DUT JENDEA. OSO GOMENDAGARRIA DA" ANTON ZELAIA

"HAIZEA KONTRA IZAN GENUEN EGUNA IZAN ZEN OKERRENA; BESTELA, PRIMERAN" MIKEL ASTIZ



Bi sakandarrak, Pisako dorre aurrean. UTZITAKOA



Bidean atseden hartu beharra dago. UTZITAKOA



Gehienetan kanpinetan hartu zuten aterpe. UTZITAKOA



Mikel Astiz eta Antton Zelaia, Italiatik Frantziara sartzear, kostaldean. UTZITAKOA

mendagarria da guztiz" dio Astizek. "Jendea zikloturismoa egitera animatuko nuke. Ez da behar egunean gu bezala egunean 150 km egitea, inondik inora. Guk kirolariak garelako egin dugu hori. Egunean 30 km egin daitezke, edonork egiten du hori, eta 10 egunetan 300 km egin dituzu. Hemendik Madrilera joan zara, esaterako. Behin arrebarekin eta seme txikiarekin Frantzia, Landetatik gertu, ibilbide bat egin genuen eta turismoa egiteko modu oso polita da. Mundu guztiari gomendatzen diot" gaineratu du Zelaia.

Senegalgo ekimena buruan

Antton Zelaia eta Mikel Astiz oso pozik daude Erroma-Sakana erronka egin izanagatik eta ekimen solidarioari esker Senegalgo neska-mutikoak eskolara joan ahal izateko Bicicletas Sin Fronterasek 25 bizikleta erosi ahal izan dituelako. Gizartez Kanpoko Erakundeak egiten duen lana eredugarria iruditzen zaie biei. "Senegalen eskolak distantzia handira daudenez, 10-15 km, gaztetxo askok ikasketak hasi baina uzten dituzte. Bicicletas Sin Fronterasen proiektu honekin, bizikleten bidez eskolaratzea sustatu nahi da. Senegalgo ikasketeen bidez gazteei bizikletak alokatzen dizkiete, prezio oso sinbolikoan, euren konpromisoa lortzeko, eta eskolara joatea errazagoa da euren dako" gogoratu du Zelaia.

Hurrena?

Behin elkarrekin bidaiatzen hasita, Pandoraren kutxa zabaltu dute eta ziur aurrerago beste ibilbide zikloturista bat etorriko dela. Gustatuko litzaieke, argi dago. "Bicicletas Sin Fronterasek Senegalen egiten duen lan ikusgarria zuzenean ikustea polita litzateke. Gure ekimen solidarioari esker erositako 25 bizikletak nora iritsi diren ikusi nahi genuke, haurrak bisitatzea. Hura ikusteko jakin-mina dugu. Horrela, egindako erronka solidarioaren zikloa itxiko genuke" dio Zelaia. "Marokon bizikletak hartu, Mauritania gurutzatu eta Senegalera iristea polita litzateke, bai" gaineratu du Astizek. "Nahi genuke, baina bidaia luzeagoa litzateke, zailagoa, tartean basamortua dagoelako... baina hor du xarma, horrek egiten du erakargarri. Polita litzateke" egiten dute amets. Nork daki?



ASTEKOA

MAIALEN GALARZA IZAGIRRE

Sexualitatearen inguruan...

Sexualitatea gizarte guztietan erregulatua egon da; kultura bakoitzak sexualitatearen zenbait aspektu ditu santzionatuak eta kontrolatuak direnak. Mendebaldean, gizarteak haurrak harreman sexualetatik urruntzen ditu. Margaret Mead-ek zioenez, gizarteek sexua eta adina diren kontzeptuak bere egin dituzte. Izan ere, mendebaldean sexua kontzeptu arriskutsu moduan ikusia izan da; beraz, edozein jarrera erotikotik txarra izan da justifikatua egon ezean. Hala nola, ezkontzaren bitartez.

Ekintza sexualak sailkatuak daude. Onarpen sozialaren arabera sailkapena egiten da. Hauetan lehenak, ezkonduen harreman heterosexualak daude. Pentsamolde hegemoniko bat dago zeinek bere kontrolpean hartzen dituen gainontzeko talde minoritarioak.

Jose Antonio Langaritik azaldu bezala, espazio publikoari dagokionez, proiektu heterosexualizantea hartzen du bere baitan. Eredu ideologiko bat da, noski. Izan ere, espazio honek, gorputzak banatzen ditu sinesmen sexual

MEDEBALDEAN SEXUA KONTZPTU ARRISKUTSU MODUAN IKUSIA IZAN DA

dute espazio fisikoekin baino.

Argi dago sexualitate kontzeptua erlatiboa dela. Esanahi desberdinak izan ditzake, kultura baten arabera, herri baten arabera, familia baten arabera... Horri jarraiki, erregulazioaren bitartez, sexualitatearen gaineko hierarkia sozial bat eraikitzen da.

dominanteen parametroen arabera. Esaterako, komun publikoei erreparatu diezaiekegu; hots, hauek adibidez, generoaren kontrolperako lekuak dira. Hortaz, espazio horiek elkar erlazioatzeko moduekin zerikusi gehiago

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXEK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapitulu-luka bidali. Gutunak asteazkena 10:00ak baino lehen bidali beharko dira erredakziora. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, NA zenbakia, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

HARA ZER DIEN

Gasteiz edo Ezkio betiko trenbidetik

SAKANA TRENAREN ALDE PLATAFORMA

Iragarri ziguten bezala egiten badute, Madrilgo, Gasteizko eta Iruñeko gobernuek bilkura egingen dute uztaile akaberan Nafarroa eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko AHTren lotura nondik izanen den, Gasteiztik edo Ezkioetik, erabakitzeke.

Gasteiztik nahiz Ezkioetik izan, bei edo bei, Sakanatik pasa beharko dira honek sakandarroi ekarriko digun mehatxua areagotuz. GUAIXE

bertan hainbatetan aipatu izan dizuegun bezelexen, Trenaren Aldeko Plataformek trenbide zaharraren gaurkotze eta egokitze baten proiektua egin dugu eta honen guztiaren balorazio ekonomikoaren zain, proiektua bukaturik daukagu.

Gure proiektu hau AHT baino askoz diru gutxiagorekin, denbora askoz motzagoan eta ingurumenari egiten zaion kaltea izugarri txikiago batekin egin daiteke. Eta hori guzia betiko tren abandonaturik utzi gabe.

Esaten ari garen hau guztia ez da balizko gauza bat, izan zitekeenaren baina indarrean jarri ez den hipotesi bitxia baizik. Dagoeneko, Madrilgo Gobernuak Teruelgo probintziari AHTa trenbide zaharretik eramanez diotela

erabaki du, hau gaurkotu eta berriro ondoren. Eta gauza bera esan diote Errioxari. Gauza bera eskatzen dugu Nafarroan eta Arabako Lautadan.

Urteak dira Zaragozako hiriburuak AVE zerbitzuen "kalitateaz" gozatzen duena, bien bitartean, eskualdeetako bizilagunek trenbide zaharraren abandonoa pairatu behar dute esteka honetan ongi aski erakusten den bezelexen. Teruel-Zaragoza lineari dagokio: <https://www.youtube.com/watch?v=64dEhegcmn0>.

Zioaren mamia, beraz, ez da Iruñeko lotura Gasteizekin edo Ezkioekin izanen ote den, baizik eta betiko trenbidetik edo plataforma txikitzaile berri baten bidez egingen duten.



OBJEKTIBOTIK



Sakanako Mankomunitatea - Mancomunidad de Sakana
@SakanaMank



MUSIKAZ BLAI. NAFARROAKO IPAR MEDEBALDEAN
EUSKARAZKO MUSIKA ZABALTZEKO EKIMENA
sakana-mank.eus/musikaz-blai-n...

@guaixe



guaixe
SAKANAKO ASTEKARIA

www.guaixe.eus

Erredakzio burua:
Alfredo Alvaro Igoa
guaixe@guaixe.eus

Erredakzioa:
Maidor Betelu Ganboa
kirolak@guaixe.eus
eta Erkuden Ruiz Barroso
kultura@guaixe.eus

Maketatzailea:
Irene Trecet Obeso
maquetazioa@guaixe.eus

Publizitatea:
Eneida Carreño Mundiñano
publi@guaixe.eus

Koordinatzailea:
Goizeder Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.eus

ARGITARATZAILEA:
Guaixe Fundazioa. Foru plaza 23-1.
31800 Altsasu
948 564 275
618 882 675

GK diseinu zerbitzua:

Ainara Santiago Langarika
info@gkomunikazioa.eus
948 564 275 (3 luzapena)
619 821 436
Ainhua Etxeberria Pikabea
gk@gkomunikazioa.eus
618 640 056

Administratzailea:
Gema Lakuntza Lopez
admin@guaixe.eus

Zuzentzailea:
Idoia Artieda Larrazza

Lege gordailua: NA-633/1995
Tirada: 3.200

LAGUNTZAILEAK

Mank
s a k a n a



Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua

BAZKIDEAK





Talde eragileko Nerea, Saioa, Erkuden eta Lander denda barruan.

Dendarako ehun bazkideren bila

Bakaikuarrok herri kooperatibak aurki Herriko Denda zabalduko du. Lokala produktuz betetzeko, aurretik dirua jartzea eskatzen du hornitzaileak. Lehen diru ekarpen horri erantzun ahal izateko bazkide egitera eta 60 euro ematera deitu dituzte bakaikuarrak

Alfredo Alvaro Igoa BAKAIKU

Heldu den ostiralean hasiko dira Bakaikuko festak. Baina egitarauan agertzen ez den ekitaldia prestatzen ari dira Saioa Zelaia Anso, Nerea Viana Zugadi, Lander Urriatza Lazkoz eta Erkuden Zornoza Arregi. Ez dakite Txorongo txarangarekin izanen den ostiralean, edo Julio Soto eta Amaia Agirre bertsolariekin larunbatean. "Edo heldu den urteko festetan", diote barre artean. Laurak Bakaikuko denda berriko talde eragileko kideak dira eta denda noiz mustu aztertzen ari dira bilera batean. Baina hori une honetan duten buruhauste txikiena da. Mahai gainean duten puzzlea aurreratu dute eta pieza gutxi batzuk jartzea besterik ez dute falta. Batetik, lokala prest egoteko gremioetako langileak azken lanak egiten ari dira. Bestalde,

denda festetarako zabaltzeko, oraintxe "dirutza" behar dute, eta, horregatik, bazkidetza kanpaina abiarazi dute.

Kooperatiba mota pila daude eta kontsumitzaileen eta zerbitzuen kooperatiba sortu dute, kooperatiba integrala deitzen dena. Irabazi asmorik gabeko kooperatiba da haiena: "ez da etekinik banatuko. Herriak izanen duen zerbitzua da etekina". Hiru bazkide mota izanen ditu kooperatibak: bazkide kontsumitzaileak (egunerokoan erosten duten herritarrak), zerbitzu bazkidea (dendatik hornituko

KOOPERATIBAREN ETA DENDAREN IRUDIAK JOSE RAMON ANDA ESKULTOREAK EGIN DITU

litzatekeen elkarte edo tabernak) eta bazkide kolaboratzaileak (udala eta erakunde publikoak). Langileek bazkide langile izateko aukera izanen dute.

Kooperatiba sortzeko gutxieneko bazkide kopuru bat behar

zen eta batzar batean 20 batek eman zuten izena. Kooperatiba sortzeko lan guztia egin ondoren, bakaikuarrei bazkide egiteko aukera zabaldu diete. Festak hasi bitartean bazkidetza kanpaina egiten ari dira. "60 euro jarriko dituzten 100 bazkide lortu nahi ditugu. Hornitzaileak dirua aurreratu gabe ez digu ezer ematen. Lehen diru ekarpena oso handia da". Bazkideek sarrerako diru ekarpenaz aparteko kuotarik ez ezer ez dute pagatu behar, "batzarrak kontraktorik erabakitzen ez badu, behintzat". Azaldu dutenez, "guk 60 euro baino gutxiago jarri nahi genuen, baina Nafarroako legeak kooperatiba mota horretarako gutxieneko kopuru hori jartzera derrigortzen du".

Bazkide egiteko hiru modu egonen dira: laurekin edo Ernesto Leitzarekin hitz egitea, ohiko tokitan izena emateko paperak jaso eta betetzea, edo 623 019 026 telefono zenbakia hots egitea. Bazkideak herriko denda aurrera egiten laguntzearen harrotasunaz aparte, kooperatibaren batzarretan parte hartzeko aukera izanen du. "Han azaldu dezake zer behar ikusten, zer eginen lukeen, edozein egoerari aurre egiteko iritziak eta ideiak eman..." Bestalde, argi utzi dute bazkideez aparte denda edozeinek erosketak egiteko aukera izanen duela. "Ongietorriak izanen dira. Zenbat eta jende gehiagok erosi, guretako hobeto".

Dendaz

Denda astegunetan goiz eta arratsaldean eta larunbat goizetan zabalik egonen da. Han bi langile ariko dira lanaldi erdian. Haiek kontratatzeko deialdia egin eta aukeraketaz aholkula-

ri izan dituzten Itsasondoko herri dendako eta Talaios kooperatibako kideak arduratu ziren. "Kooperatibarendako oso oso garrantzitsua da langilearen figura, gurekin ongi egotea. Bazkideok eta Errektore Kontseiluak asko lagunduko diegu, baina haiek dira gurditik tira egingen dutenak". Langilea "erdigunean" jarri dutela azaldu dute. "Soldata duin batekin hasiko dira, baina ahalik eta azkarren langileen baldintzak hobetu nahi genituzke. Guretako garrantzitsua da".

Dendan denetarik produktuak izanen direla aurreratu dute, herritik atera gabe erosketak egin ahal izateko. Harategi eta arrandegiko produktu batzuk izatea ere aurreikusten dute. "Negozioa baino gehiago zerbitzua ematea da asmoa. Erdigunean jartzen dugu etxetik atera ezin direnak, ondoko herrietara joateko arazoak dituztenak... Jende horri gauzak asko erraztu nahi dizkiogu". Denda kooperatiba handiago baten frankizia modura zabalduko dute, baina "bertako ekoizleen gero eta produktu gehiago" eskaintzeko pausoak emanen dituzte; "horrek, zirkulu ekonomia eta gertuko ekonomia elikatzen duelako. Gainera, kalitatezko produktuak izan nahi ditugu, ahalik eta aztarna ekologiko gutxienez". Etor-kizuneko eredu hori izanen da.

Gaur egun behar nagusia denda da, baina herri kooperatibak aukera ematen du Bakaikurako bestelako zerbitzuak eskaintzeko aukera, esaterako, energia komunitatea, zaintza, telekomunikazioak... "Herritarrendako oso garrantzitsuak diren hainbat alor eta kooperatibaren bidez erantzun daitezke. Ideiak lantzen egonen gara".

xapatero
taberna
Etxeko kroketak
eta bokatak
948 460 162 · Etxarri Aranatz

BIKAIN GARAJEA

Mekanika
Elektromekanika
Serie 100
pintura prototipoa
Autokarabana eta
furgoneta saila
948 460 037 Arbizu

FLORES

Utzubar industrialdea Arbizu
948 460 499
Nafarroako berezko txistorra.

Klinika bete egitasmo eta ilusio

Josefina Arregi klinikak hainbat egitasmo ditu mahai gainean: eguneko zentroa handitzea eta berritzea, ospitalekoendako terapia patioa egitea, energia kontsumoa murrizteko aeroterminia ezartzea eta Osasunbidearekin hitzarmena berritzea

ALTSASU

Esku artean ilusioa sortzen dieten hainbat proiektu dituzte Josefina Arregi klinikak. Angel Gardachal Ausejo gerenteak esan duenez, horietako bat eguneko zentroa berritzea eta handitzea da. Horretarako, finantzabideak aztertzen ari dira. Han lan egiten duten profesionalen helburua da erabiltzaileen osasuna mantentzea eta kognizio hondatzea mantsotzea. "Europako protokoloak pertsona ardatz duen arreta eskaintzea aholkatzen du. Horrek esan nahi du hona datorren pertsona ez dela klinikara egokitu behar, gu gara pertsonetara egokitu behar garenak bere ezaugarriak kontuan izanda. Esaterako, berandu bazkaltzen badu, berandu bazkaltzea".

Denbora daramate egokitzen, "baina guztiz egokitzeko azken bultzada behar dugu. Horrek gauza gehiago egiteko aukera ematen ligukeelako". Gaur egun eguneko zentroak 25 plaza ditu. "Sakanan dagoen eguneko zentro bakarra da. Batzuetan jendea kanpoan gelditzen da. Irabazi asmorik ez dugu, eta finantzazioa lortuz gero, ibarraren premiak ase nahi genituzke".

Bestalde, bigarren patio bat egin nahi dute. Beilatokiaren atzean legoke eta han terapia



Eguneko zentroko erabiltzaileak eta terapeutak terapia patioan, ureztatzen. ARTXIBOA

helburuak dituen berdegune bat egiteko asmoa dute, batez ere, ospitalean daudenei bideratuta. Izan ere, garagarrelean mustu zuten terapia patioa eguneko zentroko (goizez) eta ospitaleko pazienteendako (arratsalde) balio du, "baina batzuen eta beste beharrak desberdinak dira. Ospitalea gaixo akutueendako da. Etortzen direnek desoreka handia dakarte. Gurekin hilabete inguru egoten dira, esku hartze zorrotz baterako, eta ahal den neurrian konpentsatzen ditugu. Dementzia ezin da sendatu. Eta

oinarrian dementzia badago ere, beste faktore batzuek sortzen dute desoreka pertsona horien gain. Oreakatzeko guk nahasmenak sortzen dituzten beste faktore horien gainean lan egiten dugu". 21 plaza ditu ospitaleak.

Berritasunak

Sakanan etxetik etxeko zerbitzua indarrean jarri zuten 2020an. Hainbat arrazoiengatik klinikara joan ezin dutenei ematen diete zerbitzua. Bi langile dabilta horretan, gainezka daude eta langile kopurua handitzea azter-

tzen ari dira. Klinikak gaur egun 60 bat langile ditu; 2018an 46 langile ziren. Okupazio terapeuten lantaldea bitik lura pasa da, eta bi fisioterapeuta daude orain.

Bestalde, 2020ko azaro akaberan klinikak egoitza zabaldu zuen Iruñean. Horrekin urtean egingako mediku kontsulta kopurua bikoiztea lortu dute. "Lortu dugu sakandarrez eta ezagutzen gintuzten nafarrez aparte, nafar gehiagorengana iristea: 1.500 pertsona gure medikuen esku hartzeen onuradunak. Ez diogu mugarik ikusten", esan du Gardachalek. Altsasun urtean 600 kontsultatik 800era pasa dira.

Iruñerriko zerbitzu hori gobernuaren hitzarmenaren menpeko ez izatearen aldeko apustua egin du klinikak eta lortu dute. Eta 2023an Gasteizera salto egiteko prestatzen ari dira. "Klinikak eskaintzen duen zerbitzuaren parekorik ez dago Araban. Eta Altsasura etorri ezin dutenendako Gasteizen zentroa zabalduko dugu". Iruñerrikoan bezala, memoria eta funtzioak berreskuratzeko unitate bana izanen du. Dagoeneko lokala eskuratu dute eta Adania fundazioaren laguntza dute.

Miloi erdi euro

Diru hori baino gehiago inbertitu dute klinikak azken urteetan. Esaterako, eguzki plakak jarri zituzten teilatuan 2021ean. 40 kW pasajarri zituzten. "Kontsumitzen dugun argindarraren %25 inguru sortzen dugu horrela", azaldu du Gardachalek. Energiaren autoekoizpenean hurrengo pausoa aeroterminia izanen da. "Horrekin berogailurako eta ur berorako erabiltzen dugun gas kontsumoaren %85 aurrez genezake", zehaztu du gerenteak. "100.000 euro baino gehiagoko

proiektua da eta finantziatzaileak bilatu beharko ditugu", aurreratu du Gardachalek.

Finantziarioa

Aipatutako lanak egiteko finantzabideak bilatzen aritzen dira. Historikoki Josefina Arregi klinikaren finantziario iturriak izan dira, batetik, klinikako lagunen elkartearen (500 bat bazkide) eta Trans Sakana, Sakana Group, Lazaro Echeverria eta Adania fundazioaren diru emateak, eta, bestetik, Nafarroako Kutzaren fundazioa. Finantziabide berriak opatzeko Laboral Kutxarengana jo zuten eta duela urte eta erdi ari da finantza laguntza ematen. Kutzak urtero klinikari diru kopuru bat ematen dio nahi bezala erabil dezan. Eta, horretaz aparte, proiektu jakinak garatzen laguntzen dio. Aurten, esaterako, lasterketa eta patioa terapiarako egokitzea.

Osasunbidearen hitzarmena ere beste finantza iturri garrantzitsua da, hark klinikari eguneroko martxa bermatzen baitio. Klinikako ordezkariak Osasunbidearekin duen hitzarmena berritzeko negoziazioetan ari dira gaur egun. "Behingoz, klinikaren alde apustu egin eta mantentzen gintuzten erabateko prekarietatearekin hausteko eskatu genuen 2019an. Departamentuaren erantzuna ikusgarria izan zen, kontzertuaren ekonomia arloa eguneratu ziguten eta gaur egun jasagarriak gara", azaldu du Gardachalek.

KLINIKA BERRITZEKO 500.000 EUROKO INBERTSIOAK EGIN DITUZTE AZKEN URTEETAN

Atez ate.

Egunero herriz herri Amayako banatzaileak zure etxera gerturatzen dira produktu freskoak emateko, egin berriak. Goza ditzazun, bere zapore eta testura bereziarekin.

amayaokindegia.eus

Babestutako Gizarte Enpleguan 30 sakandar

Hiru Oinarritzko Gizarte Zerbitzuek Babestutako Gizarte Enplegua martxan dute. 19 emakumezko eta 11 gizonezko dira udalendako lanean 151 hilabetez. Kontratazioak egiteko Nafarroako Gobernuaren 283.629,34 euroko dirulaguntza jaso dute

SAKANA

Babestutako Gizarte Enpleguaren helburua gizarte bazterkerian edo arriskuan dauden pertsonen lan kontratazioa da, hain zuzen, lanpostuak lortu eta mantentzeko zailtasunak dituztena. 30 eta 11 zuzenean udalendako lanean ari dira eta gainontzeko 19ak Irurtzun eta Altsasu aldeko mankomunitateen programa banatan ari dira. Horien bidez langile horiei laguntza ematen zaie trebezia soziolaboralak eta lanbide trebeziak ikasteko eta, aldi berean, interes kolektiboko jardue- ra bat egiten dute.

Irurtzun aldeko Oinarritzko Gizarte Zerbitzuak (OGZ) 10 per-



Altsasuko Udaleko langileak konponketa bat egiten. ARTXIBOA

tsona kontratatatu ditu. Haietako zazpi (hiru emakumezko eta lau gizonezko) Iturraskarri proiektuan lanean ari dira. Haietatik seik urte erdirako kontratua dute eta zazpigarrenak lau hilabetekoa (30 orduko lan astea). Eskualdeko ondarea eta natura zaindu eta babesteko proiektua da Iturraskarri eta parte hartzaileek, begirale baten laguntzaz aritzen dira. Udalek egiten duten eskaeren arabera, batean edo bestean aritzen dira lanean. Gainontzeko hiru kontratatuak (bi emakumezko eta gizonezko bai) eskualdeko bi udalendako ari dira lanean zerbitzu anitzetako lantaldean. Bi lanaldi osoan ari dira eta besteak 30 orduko lan astea du. Guztiek sei hilabeteko kontratua dute.

Ettxarri Aranatz aldeko OGZ-ren bidez zortzi pertsona kontratatatu dira. Haietako hiruk urte erdirako kontratua dute (bi gizonezko eta emakumezko bat), beste lauk hiru hilabetekoa (emakumezkoak) eta batek hilabete batekoa (emakumezkoa). Eremuko udalendako lanean ari dira eta guztiek ikastaro bat jasoko dute. Haren bidez iturgintza, elektrizitate ezagutzak

jaso eta enplegua aktiboki bilatzen ikasiko dute.

Altsasu aldeko OGZk hamabi pertsona kontratatatu ditu aurten. Mankomunitatearen helburua da kontratatzen dituzten pertsonak urte batez aritzea. Kontratuak ikasturteka egiten dituzte. Horregatik, aurreko urtean Babestutako Gizarte Enpleguan aritu ziren pertsona batzuek aurten segitu dute eta aurten hasi diren batzuek heldu den urtean segituko dute. Horregatik, kontratuen iraupena desberdina da

Hamabitik bederatzi (sei emakumezko eta hiru gizonezko) urte hasieratik ari dira lanean. Horien lanaldiak bost eta hamar hilabete artekoak dira. Orain hasi eta urte bukaera bitartean ariko diren hiruetako bi emakumezkoak dira eta bestea gizonezkoa. Haien lanaldiak bat eta hiru hilabete artekoak dira. Mankomunitatearen eremuko bi udal-letan ari dira langile horiek lanean. Haietako lau pertsona proiektu batean parte hartzen ari dira, eta, horregatik, haiekin begirale bat ariko da sei hilabetez. Haien lana udalaren lantaldearekin koordinatuta dago.



Osasun eremuarendako "behin betiko konponbidea" eskatu dute

Osasun arretaren okertzea gehiegi luzatzen ari dela eta 'behin behineko adabakiak jartzeaz' nahikoa dela diote

ALTSASU / OLATZAGUTIA ZIORDIA

Sakanako Osasun Publikoaren aldeko Plataformak deituta, garileko eta agorrileko aste-lehenetan kontzentrazioak egingen dituzte Altsasuko osasun etxearen parean. *Osasun etxea gehiago zaindu!* lelopean aurreneko bilkura aste honetan egin da eta plataformako kideek adierazi dutenez, "urteak daramatzagu ikusten osasun sistema publikoa nola hondatzen den gero eta gehiago. Gobernuak, ordea, ez diote konponbidea eman nahi izan; kontrakoa, diru publikoarekin osasun pribatua indartu dute. Osasun publikoko sistemari ez diote giza eta material baliabiderik eman". Gaineratu zuten, "osasun sistema publikoa bertan behera uzteko politika horiek sistema pribatu bat bilatzen dute, dirua dutenak bakarrik izanen dute kalitatezko sanitatea izateko aukera. Gauzak horrela segituz gero, osasun txartela eskatu beharrean bankuko txartela eskatuko digute, osasun zerbitzua kobratzeko. Horrelakorik ezin dugu onartu, inolaz ere". Horregatik, "kalitatezkoa, doakoa eta uni-

bertsala den osasun sistema publikoa mantendu eta indartzea" exijitu zuten.

Plataformako kideek gaztigatu zuten, "jubilazioagatik edo bestelako arrazoiengatik baja hartu duten medikuak ez dituzte ordezkatu, eta egoera gero eta larriagoan gaude. Medikuek gutxiago egotearen ondorioz, arreta eskasagoa da gaixoarendako, eta osasun langileendako egoera estresagarriagoa da, herritarrei behar bezalako osasun arreta eman ezin dietelako".

Langileen ordezkariak ere hitza hartu zuten eta nabarmendu nahi izan zuten osasun eremuan dagoen egoera ez dela haien ardura. "Gu ari gara sufritzen mediku falta. Hots egiten duzuen eta hitzordurik ematerik ez dagoela esaten dugunean, egia da. Ezin dugu ezer egin. Egoera ahal dugun moduan kudeatzen saiatzen gara". Gaineratu zuten, langileek ulertzen dute jendeak mediku kontsulta premia izatea eta ezezkoa jasotzean jendea haserretzea. Horregatik, azpimarratu zuten egoeraren ardura ez dela langileena, eta haien egoera ulertze-ko eskatu zuten.

DUELA 25 URTE...



Farmazia Etxarrenen

Arakildarrak botika eske Irurtzunera joaten ziren aurretik, baina baziren hilabete batzuk Etxarrenen farmazia zabaldu zela. Botikaria jabetu zen ibarra herri txikiz osatuta zegoela eta pertsona batzuk ezin zirela botika eske bereganatu. Horregatik, etxeko zerbitzua eskaintzen hasi zen. Horretarako, arakildarrek farmaziara hots egin eta errezetaren berri eman behar zuten.



Garraiolarik altsasuarrak bidesarien kontra protesta egiten. ARTXIBOA

Kamioiendako bidesariak, gertuago

Nafarroako Aldizkari Ofizialak garilaren 1eko 23/2022 Foru Legea argitaratu zuen, eta, horrekin, beste pauso bat eman da kamioiek bidesaria ordaintzeko herrialdeko bost autobia eta errepideetan ibiltzeagatik

SAKANA

Nafarroako Gobernuak kamioiendako bidesariak kobratuko ditutortokizunean Iruñea-Behobia errepidean (NA-121-A), Ebroko Autobian (A-68), Iparraldeko Autobian (A-1), Sakanako Autobidean (A-10) eta Leitazarango Autobidean (A-15). Hau da, 3,5 tona baino handiagoa den kamioia duten garraiolarik sakandarrak bai edo bai ordaindu beharko dute. Hedabideek argitaratu dutenez, baliteke Gipuzkoako Foru Diputazioak Etxegarateko portuan bidesaria kobratzeko baliatzen duen arku bera baliatzea Nafarroako Gobernuak bidesaria ezartzeko. Hala balitz, ziurrenik, ezarriko litzatekeen aurreneko bidesaria hori litzateke. Nafarroako Gobernutik gogorarazi dutenez, "bidesariak jarriko diren bost bideetatik zirkulatzen duten ibilgailu astunen ia %90 Nafarroatik kanpokoak dira".

Onartutako legea Europar Batasunaren garagartzaroaren 17ko 1999/62/EE Zuzentarauan

oinarritzen da, zeinak ibilgailu astunei bide azpiegiturak erabiltzeagatik karga-tasak aplikatzea arautzen duen. Foru administrazioko arduradunak "nork erabili, horrek pagatu" printzipioan oinarrituta, esan dutenez, "errepide erabileraren gaineko kanona Nafarroako Ogasun Publikoaren baliabide gisa sortzen da. Tarifak bere egitekoa beteko du kostu horiek erabiltzaileei ordainaraziz". Bildutako dirua erabiliko du bide mantentze eta ustiapenerako ekintzak finantzatzeko, baita azpiegitura berriak eraiki eta horiei loturiko zerbitzuak ezartzeko ere, zeinak, kasu bada, Nafarroako Errepide Sareari atxikiko baitzaizkio".

SAKANAKO HIRU AUTOBIATAN JARRIKO DITUZTE IBILGAILU ASTUNENDAKO BIDESARIAK

Bidesaria kobratzeko arkuak jarriko dituzte autobietan eta kamioiak azpitik pasatzean ordaindu beharko dute. Horretarako, gidariek dagokien gailua eduki beharko dute ibilgailuan, bestela, gobernuak esandakoari jarraituz, matrikula zenbakia ordainbide bati lotzeko informazioa eman beharko dute. Kanona ordaintzetik salbuetsita daude administrazio publikoaren ibilgailuak edo azpiegituraren kontserbatze eta mantentze lanen esleipen hartzaile diren enpresenak, bai eta larrialdi eta istripuetakoak eta Europar Batasuneko araudiaren arabera salbuetsita daudenak ere.

Horrekin batera, enpresa publiko bat sortuko da, kamioien bidesariaren ezarpena kudeatzeko duena. Egoitza Arakilen izanen du, Etxeberri parean, Irurtzundik atera nahi den errepideen mantentze gunearekin batera. Arakilgo Udalak Etxarrengo industrialdean kokatzea proposatu du.

Konfederazioak ubeldean eta Urdalurren lanak egingen ditu

Uholdeen arrastoak garbituko ditu eta uberakako galerietan mantentze lanak egingen ditu

SAKANA

Urdalur urtegia erabiltzeagatik Sakanako Mankomunitateak Ebroko Hidrografia Konfederazioari (EHK) ur hornidura kontzesioagatik kanona ordaindu behar dio. Heldu den urtean metro kubiko bakoitzeko 0,0922349822 euroko kanona ordainduko du. Bestalde, Estatuak, uholdeen kontrako babesa eta gainerako onura orokorrengatik, 51.967,49 euro ordainduko dizkio. Normalean, Mank-ek urteko kanonaren %80 ordaintzen du eta Estatuak %20.

Kanon horren zati bat mantentze lanetarako bideratzen du EHK-k. Joan den urtean filtrazioak eragozteko urtegia hustu eta uberakaren paretan iragazgaizte lanak egin zituzten. Aurtun, berriz, uberka barruko galerien argiak berritu eta aireztapena hobetzeko lanak egingen dituzte. Azken horrekin, kondentsazioa murriztu nahi dute.

Bestalde, Nafarroako Gobernuaren Babes Zibileko Zerbitzua- ren gidalerroei jarraituz, EHK-k emergentzia plana egin behar du. Urdalurri dagokionez, erre- dakzioa ia despeditzeaz dute. Han jasoko da telekomunikazio aretoa egin edo hobetzea eta, uberka hautsiz gero, herritarrak gaztigatzeko abisu sistemak jar- tzea. Idatzita dagoenean jakinen dute inbertsioa zenbatekoa den.

Uholdeak

Abenduaren 10eko uholdea aspaldiko handiena izan zen eta

hainbat kalte eragin zituen. Lehen fasean ezohiko uholdeen ondoren EHK-k Erribera aldean ibilguta- ko kalteak eta defentsarako azpiegitura hidraulikoak kon- pontzeko lanak egin zituen lehe- nik. Bigarren faseari ekin dio orain eta 20 jarduera egitea au- rreikusten ditu. Haietako bat Arakil ibaiaren arroan.

EHK-tik azaldu dutenez, ubel- dea zuhaitzez, adarrez eta bes- telako zaborrez garbitzen ari dira Arakilen gaur egun. Hango lanak despeditu ondoren, Uhar- te Arakilen, Arbizun, Etxarri Aranatzin eta Altsasun ere gar- biketa lanak egingen dituzte. Era berean, lur azaleko higadurak konponduko dituzte Uhartea Ara- kilen eta Urdiainen. EHK-ko arduradunek ez dute baztertzen lanak egin ahala beste batzuk sortzea.



Uberka barruko galeria. ARTXIBOA

Udalak hirigintza plan berria onartu du

Hasierako onespeneren ondoren bi hilabetez egonen da jendaurrean, eta epe horretan interesdunek bidezkoak iruditzen zaizkien alegazioak egin ditzakete. Planaren edukia 'www.ergoiena.com' webgunean kontsulta daiteke

ERGOIENA

Azken lau legegintzaldietan hi- rigintza planaren berritzea Er- goienako Udalaren mahai gainean egon ondoren, azkenik, onartu egin da. Gaur egungo hirigintza araudia 1998tik dago indarrean eta orain arte hari egindako mol- daketekin egin dute aurrera. Bestalde, plan haren garapena txikia izan da. Ez dira aurreiku- sitako unitateak garatu.

Ikusirik azkenaldian ibarrean egin diren etxe gehienak jabeek sustatu dituztela, eta etxebizitzak eraikitzekeko promozio handirik ez dela behar, dauden herri gu- neak eta haien ertzak osatzera jo dute plan berria egitean, "egun- goarekin bat datorren herrien garapen harmonikoa" sustatuz. Indarrean dagoen planean Er- goienan 160 etxebizitza egiteko aukera eskaintzen zuen; berriak, berriz, 180. Haietatik Lizarragan 67 aurreikusi dira (lehen 72), Dorraon 50 (lehen 44) eta Unanun 63 (lehen 44). Unanun, Ondatz bide frontoiaren ondoan, urba- nizazio bat garatzeko aukera jasotzen du proiektuak eta, ho- rregatik, aurreikusi dira han etxe gehien. Emeterio Senar Elso alkateak azaldu duenez, "Liza- rragan eta Dorraon etxeak egi- teko proiektuak zeuden, baina hainbat arrazoiengatik ez dute



Ergoienako ikuspegia Lizarragako portuko begiralekutik. ARGTXIBOA

aurrera egin. Urte txarrak heldu dira, baina horrek ez du esan nahi etorkizunean ez direnik egingen". Bestetik, Ergoienak duen biztanleriarekin kezka azaldu du alkateak.

Aurreikusitako etxeak egingen balira, kale berriak eraiki behar- ko lirakeke, baina bitartean dau- denak dauden moduan utziko dira. Hori bai, Unanuko Kontzejuak erabaki bat hartu beharko du. Izan ere, autobus geltokiaren eta me- diku kontsultategiaren artean dagoen bidegurutzean errotonda bat egin edo ez erabaki beharko

du. Gaur egun autobusek han buelta emateko arazoak dituzte. Lur eremuak hartuta borobila egingen balitz, autoek ongi emanen lukete buelta, baina autobusek arazoak izaten segituko lukete.

Industrialdea Utzubar aldera handitzeko aukera aurreikusten du plan berriak. Hasiera batean ibarreko bi errepideak (NA-120 eta NA-7100) lotzen dituen Liza- rraga eta Unanu arteko bidean errepide bat egin eta haren parean industria eremu estrategikoa sortzea aurreikusi bazen ere, erreserban utzi dute.



MAPFRE

JOSE ANTONIO IMAZ PRIM
jimazpr@mapfre.com
948 563 354 · San Juan 48 behekoa · ALTSASU



BIL TOKI

TABERNA · JATETHEA

Eguneko menua 11 €

Menu berezia 15 €

Telefono berria:
948 562 348 · Altsasu

Zure edari banatzailea!



Hijos de Goikoetxea

Tel. 948 487 317 · 996 979 279 · Geltoki auzoa 11 · ALTSASU



Gorka Izagirre, Aigle eta Châtel arteko Tourreko bederatzigarren etapan. MOVISTAR TEAM

"Pirinioak beti gustatu izan zaizkit. Etxean sentitzen naiz"

GORKA IZAGIRRE INSAUSTI TXIRRINDULARIA

TXIRRINDULARITZA Alpeetako atsedean egunean, Vingegaardek Tourra hankaz gora jarri baino lehen, Gorka Izagirrek Tourrak gorabeherak ekarriko zituela iragarri zuen

Maidar Betelu Ganboa ZIORDIA

Olinpiar jokoan ondoren kirol ekitaldirik ikusiena dena, Alpeetako goi mendiko etapan murgilduta egon da. Astelehenean atsedean hartu zuen tropelak, eta Gorka Izagirrek (Movistar Team) egunetik egunera joan beharra dagoela nabarmendu zuen, "honek oraindik gorabeherak izango dituelako". Bete-betea asmatu zuen. **Aurtengoa zure bederatzigarren Tourra da. Erraz esaten da.**

Bai. Aurtengoa ia denak bezalako da. Beti izan dut sailkapen

nagusirako lider bati Tourra egiten lagundu beharra. Samuel Sanchezekin hasi, gero Alejandro Valverde edo Nairo Quintana, Vincenzo Nibali, Jakob Fuglsang eta orain Enric Masekin gaude. Hor doa lasterketa. Polita egiten

"TOURREAN EGUNETIK EGUNERA JOAN BEHAR DA, ORAINDIK GORABEHERAK IZANGO DIRELAKO, SEGURU"

ari da, eta ikusiko dugu. Oraindik bi aste geratzen dira.

Tourreko lehen astean irabazteko baino gehiago dago galtzeko: etapa azkarrak, galtzadarria... Egun zail horietan eutsi diozue eta Alpeetako lehen etapan Enric Mas liderra hirugarren postuko borrokan sartu zen. Movistarren nola bizi da Tourreko lehen zati hau?

Esan duzun bezala, lehen asteak hori dakar. Arrisku handia egoten da lehenengo egunetik, eta taldeetan lana banatu egiten da. Niri, Imanol Erbitiri, Nelson

Oliveirari... lanik gehiena egitea tokatu zaigu. Igandean mendiko lehen etapa izan zen eta hemen-dik aurrera beste motako etapak etorriko dira. Lehiakorrek garen ikusiko dugu. Enric ongi zegoen igandean, baina egunetik egunera joan behar da. Honek oraindik gorabeherak izango dituelako, seguru.

Galtzadarrien etapak polemikoak izaten dira. Ikusgarriak dira, ezin da ukatu, baina kalte handia sor dezakete. Gogorrekiak ez ote?

Gogortasuna baino, halako etapa batek tropelean sortzen duen urduritasuna da gehiago. Urduritasuna izugarria izaten da, eta hori kudeatzea ez da batere erraza izaten ez liderrendako edo Imanol Erbiti edo ni bezalakoendako, hau da, hor muturra jartzen egotea tokatzen zaigunondako, beste taldekideekin borrokatzen ibili behar izaten dugulako.

Alpeek erabakiko omen dute, baina berehala Pirinioetako etapak datoz.

Betiko kontuak izaten dira. Une honetan (astelehena, lehen atsedean eguna) Tadej Pogacar eta Jonas Vingegaard ikusten ditugu gainera. Beharbada saiatuko dira, batez ere Pogacar, datozen egunetan benetako kolpea ematen, iaz egin zuen bezala, baina hori ere ikusteko dago. Egia da hiru etapa oso gogor datozela Alpeetan, eta gero Pirinioak ere hor daude, bi etapa oso gogorrek. Dena den, ez da ahaztu behar azken aurreko etapa, erlojupekoa, luze xamarra dena. Denok dakigu askotan segundoak mendiko etapaino baino gehiago erortzen direla erlojupekoan. Ikusteke dago.

Pogacar lider sendoa da, baina zuk uste duzu sorpresaren bat etor daitekeela?

Pogacar sendo dago, baina, Tourrean hiru aste dira eta oraindik bi gelditzen dira. Hori kudeatu egin behar da eta etapa gogor horiek pasatu behar dira. Ez berak bakarrik, bere taldeak ere bai. Pogacarrek bi urtez garai-pena lortu du, eta hirugarrenaren bidean dago, baina oraindik ez du lortu. Lan asko du oraindik egiteko. Oraindik gorabeherak egon daitezke.

Alpeak ala Pirinioak nahiago?

"EZ DAKIT TROPELEAN NORBAIT EGONGO DEN TOURRA ERBITIK BEZAIN ONGI EZAGUTZEN DUENIK"

Niri Pirinioak beti gustatu izan zaizkit, izugarri. Etxeko bezala sentitzen ditut. Euskalteleko garai haietan ere Tourrean izan nintzen eta jendetza hura ezagutu izan dut, zale euskaldun guztiak nola joaten ziren Pirinioetara. Hori hor gelditzen zaizu, gordeta. Pirinioak oso bereziak dira eta etxean bezala sentitzea eragiten dizu horrek.

Movistar Team taldera itzuli zara berriz. Aldaketa handia nabaritu duzu?

Talde gisa materialarekin eginak dituzten aldaketak nabaritu ditut gehienbat, bizikletak eta materiala. Pisu handia zuen jende bat falta da, nik faltan botatzen dudana, baina, hortik aparte aldatarik ez.

Hiriberriko Imanol Erbiti han zegoen eta bertan jarraitzen du.

Imanol hemen da, eta beti bezala. Lehen pisu izugarria zuen laneko kontuan, eta oraindik hala jarraitzen du. Badaki Tourra nolakoa den. Ez dakit tropelean norbait egongo ote den Tourra berak bezain ongi ezagutzen duenik. Aurten zailtasun handiak izan ditu Dauphinén erorketa bat izan zuelako. Ez zen Dauphinén ez Suitzako Itzulian aritu. Jendeak agian uste zezakeen Tourrera ez zela ongi iritsiko, baina berak badaki gauzak oso ongi egiten, eta ongi iristen. Hemen da, oso maila onean.

Maila pertsonalean Tourrean helbururik jarri al duzu?

Ez. Gazteagoa nintzenean postuak, etapa garaipenak... zerbait nuen buruan, baina urte batzuk badira kontu horiek aspaldi burutik kendu nituela. Ni hona lanera etortzen naiz, horretarako ordaintzen didate, egin beharrekoak egiten ditut, talde lana, eta hor bukatzen da.

COVID19-ak berriro indarra hartu du. Zazpigarren olatua omen. Neurriak hartu behar izan dituzue?

Bai, Dauphinétik erabakiak hartu ziren. Gorakada hori bazetorrela ikusten genuen, eta neurriak hartzen ari gara. Tourrean ere positiboak ia egunero azaltzen dira batean edo bestean. Zorionez, alde horretatik momentuz libratu gara eta pozik.

Goi mendiko etapa hauen bezperatan urdurioak egoten zarete?


Ez. **Nola ikusten duzu Enric Mas?** Animotsu dago. Ikusiko da. Bere lekua bilatu behar du, eta pixkanaka ikusiko dugu zertan gelditzen den.




SAKANAKO

erzaldoriak

ezagutzen



- ➡ ETXARRI ARANATZ
- ➡ IRURTZUN
- ➡ OLATZAGUTIA



➡ Beltza Txuria

Urtea: 2017

Neurriak: 2,96 m eta 26,2 kg

XIII. mendeko Etxarriko emakume dotorea, Beraxkoren andrea. Beltza eta Zuria baterako zein besterako, bai onerako bai txarrerako, goxotasunerako nola larritasunerako, ahuntzetarako eta arditarako... Hitz batean laburbildurik, edozertarako baliagarri, mendeetan eta mendeetan gure lurraldeko emakumeei egokitu zaien zeregina islatuz.

➡ Kixkimau Pintto

Urtea: 2017

Neurriak: 3,62 m eta 32 kg

Kixkimau (Pintto) Etxarriko ihaute-rietako pertsonaia, aurpegia ikatzez belztua duena. Zakuzko jantzia, lastoz beteta, eta ttuntturroa buruan duela. Bere osagaiak Kixk(al)i eta mau izan daitezke, lehenak "erabat erre" adieraziz eta, bigarrenak, berriz, beldurra sortzeko espiritu edo arimek, dagoeneko gizatiarrak ez diren izakiek, erabiliko luketen soinua: Maaaaau! Eta Pintto, aldiz, aurpegiko itxuratik etorriko zaio, seguru asko, ikatzez edo errautsez "apainduta" baitago.




➡ Beraxko

Urtea: 2017

Neurriak: 2,97 m eta 26,9 kg

XIII. mendeko Etxarriko gizon dotorea. Beltza Zuriaren senarra. Beraxko, izen eratorria, "beratz" (biatz etxarrieran) eta -xko atzizki txikigarria. Biazkillo esanen genuke egungo etxarrieran. Eta kasu honetan ere, ez zen seguruenik soilik itxura aldetik ezarritako izena izanen. Abizen moduan, gaur egun, Belasko/Velasco bezala ageri zaigu.




➡ Txinerratxo

Urtea: 2017

Neurriak: 3,32 m eta 30,6 kg

Etxarriko imaginario kolektiboko sorgina. Izua eragin lezake, baina Beheko Basoko atso jakintsua dugu, naturarekin bat egina dagoen espiritu onuragarriak. Gaur egun oraindik ere ezagunak dira Etxarriko zenbait etxetan joan zen mendeen kontakten ziren istorioak, zeinetan Txinerratxo zen protagonista, hegan batetik bestera, gaua kanpoan pasatzea egokitzen zitzaion jendearen buruaren inguruan, honen hegaldien soinua baino ezer gehiago identifikatu ezin bazuten ere.





➔ Amaia

Urtea: 1983

Neurriak: 3,30 m eta 55 kg

Printzesa godo bat zen, Lorearen alaba (Aitorren ondorengoen artean zaharrena, euskaldun guztien aita) eta Ranimiro, printze godoarena. Haren alaba bakarra zen Lorea. Aitorren hitzetan, berarekin ezkonduko zena izango zen lehen erregea. Kondairaren arabera, Euskal Herriko lehen erregina izan zen. Amaiak beti zeraman besoa amak utzitako besoko bat. Honek berebiziko garra-

➔ Petronila

Urtea: 1983

Neurriak: 3,30 m eta 55 kg

Garai hartan, "Etxeberri eroaren" izenarekin ezaguna zen, Lorearen laguna. Nork esan zion zein lekutan zegoen Aitorren altxorra? Aitorren altxorra eta besokoa eman zizkion alabari helarazteko. Bera izango da Amaia salbatuko duena bi Ahizpetan hiltzear dagoenean.



➔ Teodosio de Goñi

Urtea: 1983

Neurriak: 3,30 m eta 55 kg

De Goñi jaunaren semea. Kondairaren arabera, lo zeuden bere gurasoak hil zituen, bere emaztea eta beste gizon bat zirelakoan. Etsi-etsian, Erromara joan zen Aita Santuari barkamena eskatzera. Hark Aralarko mendietan gerrian kateak jarrita bizitzeko penitentzia ezarri zion. Urte askoren ondoren, herensuge bat agertu zen. Teodosiok San Migeli laguntza eske deitu zion. San Migelek herensugea hil zuen, eta Teodosiok zeramatzan kateak hautsi eta lurre-ra erori ziren. Legenda hori omen da santutegia eraikitzeko arrazoia.



➔ Garzia Ximenez

Urtea: 1983

Neurriak: 3,30 m eta 55 kg

Abartzuza jaunaren eta Ameskoen semea. Euskaldunen lehen erregea bihurtuko da Amaiarekin ezkontzean. Harizti batean errege izendatu dutela dirudi. Altsasuko San Pedro ermitan jasota dago.



➡ Nafarroakoa Leonor

Urtea: 1983

Neurriak: 3,5 m eta 28-35 kg

Trastamarakoaren eta Karlos III.aren alaba, Iruñean 1387ko garilaren 6an jaio eta Santa Mari a la Real de Nieván hil zen 1441ko apirilaren 1an. Nafarroako erregina izan zen 1429tik 1441ra.



➡ Iñigo Aritza

Urtea: 1983

Neurriak: 3,5 m eta 28-35 kg

770 urtean jaio zen eta Izaban hil 852an. Nafarroako errege-erreginen dinastian lehen izen ezaguna da. Ingurunean Karolingiar inperioaren kontra ari ziren jauntxoek buruzagia zen.



➡ Miguel

Urtea: 1990

Neurriak: 3,5 m eta 28-35 kg

Konpartsako arima den Julio Marques Amilloren lagun eta Faltzesko erraldoi dantzaria, kamioi istripuan hil zen. Alargunaren baimenarekin, erraldoiak haren aurpegia du. Garai bateko alkatearen jantziak ditu.



➡ Paloma

Urtea: 1990

Neurriak: 3,5 m eta 28-35 kg

Konpartsa erroto eta beste erraldoi bat egin behar zuten: Miguel. Bikotea egitea otu zitzaien, eta herrian oso maritata izan zen emakumea aukeratu zuten. Herriko ohiko jantziak ditu.



Joan zen urteko partaide batzuk.

SASKIBALOIA Ziordiko Saskibaloi Txapelketa bide onean

Ziordiko Udalak eta Ziordiko Running taldeak antolatuta, uztailearen 23an V. Ziordiko Saskibaloi Txapelketa jokatu da Ziordiko parkean, 10:00etatik aurrera. Hasiara batean saski torneoaz uztailaren 30ean zen egitekoa, baina, azkenean, aste-bete aurreratuko da.

Jose Ramon Ramirez antolatzailerak azaldu duenez, momentuz 18 neska-mutilek eman dute izena, "kopuru polita, baina aste-artera arte pentsatzen dut norbait gehiago animatuko dela". Basketarekin gozatuz goiz ederra pasa nahi duenak 620 064 534 telefonon eman dezake izena. Lehiaketa egunean antolatuko dira taldeak.

Saskibaloi txapelketan gaixotasun ultra arraroa duen Markel Carmona haur urnietarraren aldeko zozketa egingo da. Sari ederrak zozketatuko dira: futbol eta saskibaloi taldeen kamisetak, Jon Arretxeren liburuak, roko-dromorako sarrerak, Donostiako barkuan paseoak... eta bestelako sari asko.

"Ehunmiletan bigarren, oso pozik nago"

ANDER ERICE TORNARIA MENDI KORRIKALARIA

MENDI LASTERKETAK 168 km-ko Ehunmilak ultra trailean Javi Dominguez txapeldun handiaren atzetik sartu zen helmugara Arbizun bizi den mendi korrikalaria

Maider Betelu Ganboa ARBIZU

Asteburuan XI. Ehunmilak (168 km, 11.000 +), XI. G2Haundiak (88 km) eta VI. Marimurumendi Marathon (42 km) lasterketa ikusgarriak jokatu ziren Beasainen, Arrastaka mendi taldeak antolatuta, parte hartze handiarekin. G2Haundietan Aritz Egeak errekorra apurtu zuen (9:51:45) eta Aitor Salinas etxarriarra izan zen lehen sakandarra, 69. postuan (14:26:28). Ander Ehunmiletan, Ander Erice arbizuarra izan zen ultra traila despeditzea lortu zuen sakandar bakarra, Mandubia, Gorlako gaina, Txindoki, Lizarrusti eta San Adrian lotu eta bero. Seigarren aldiz irabazi duen Javi Dominguez gasteiztar txapeldunaren atzetik (23:04:06) sartu zen Erice (25:36:03). **Ehunmilak ultra trailean bigarren, Javi Dominguez handiaren atzetik. Meritu handikoa da hori.**

Oso pozik nago, lehenik eta behin Ehunmilak bukatu izanagatik, 100 miliako lasterketa osatzea kontentu egoteko modukoa delako. Duela hilabete eta erdi Euskal Trails ultra traila (133 km) irabazi nuen Baigorri (16:30) eta errekorra apurtzeko 5 minutura geratu nintzen. Horregatik, Ehunmiletan lasterketa ona egingo nuela sentitzen nuen, proba 24 orduren bueltan egite-



Ander Erice, Ehunmilako Beasaingo helmugan. UTZITAKOA

"BAIGORRIKO EUSKAL TRAILS IRABAZITA, EHUNMILETARAKO SENTSazio ONAK NITUEN"

ko aukera ikusten nuen. Sentsazio onak nituen.

Nola planteatu zenuen lasterketa? Beti planteatzen ditudan bezala. Lasterketa luzeetan korrikalari bakoitzak bere lasterketa egin behar du. Hau da, gainontzekoak

ahaztu eta norbera berean zentratu behar da. Norberak bere gorputza, erritmoa, lasterketa nola kudeatu behar duen... primeran ezagutzen du, eta burua horretan jarri beharra dago. Nahiko lasai ateratu nintzen, lehen-dabiziko kilometroetan gehiegi estutu gabe, uneren batean beherealdia etorriko dela baitakizu. Erritmoa hartuta, bereziki jaitsierak kontrolatzen saiatu nintzen, jaitciera lasaiak egiten, bukaerarako indarrak gordetzeko. Sentsazio onak nituen, baina 30. kilometroaren ondoren ur-

dailean arazoak sumatu nituen eta elikadura, hidratazioa eta beste kudeatu behar izan nituen. Ez nintzen oso ongi sentitzen, eta denbora galtzen ari nintzela konturatu nintzen. Baina aurrera egin nuen, denbora kontuak alde batera utzi eta lasterketa ahalik eta hobekien bukatzea izan zen nire erronka.

Lortu zenuen, Beasainera bigarren heldu baitzinen.

Bigarren sartu nintzen, 25 ordu eta 36 minututan. Nahiz eta ez zen esperotako denbora izan, 24 orduren bueltan ibiltzea aurreikusten bainuen, izan nituen arazoak kontuan hartuta oso kontentu nago. Lasterketa aurretik, eta lasterketa egunean ere, ez nintzen komunera behar bezala joan eta horrek gorputzean eragina izan zuen. Halakoak ez zaizkit orain arte gertatu, baina Ehunmiletan hala izan zen. Beraz, guztia kontuan hartuta, kontentu nago proba bukatzeagatik eta, gainera, bigarren izateagatik. **Pentsatzekoa da hemendik aurrera denboraldian etena egin eta atseden hartuko duzula.**

Oporrak hartu ditut eta aste pare batean lasai ibiliko naiz. Korrika egitea ahaztu, eta mendira paseoa ematera joango naiz. Hemendik hiru astera korrika hasiko naiz, baina lasai, eta abuztuaren erdialdean entrenamendu fuertekin hasiko naizela aurreikusten dut, irailaren 23an Asturiasen Por Donde Camina el Oso izeneko ehun miliako ultra traila jokatu dudalako. Joan zen urtean antolatu zuten lehen aldiz, eta aurtengo deitu naut bertan aritzera gonbidatuz. Toki ederra omen da, Somiedo eta Leondik gertu, eta ez dudanez ezagutzen, bertan aritzeko gogotsu nago. Hori da aurtengo hurrengo helburua.

Garcia de Eulate ikusgarri

TRIATLOIA Sakana Triatloi Taldeko Sergio Garcia de Eulate altsasuarra El Pont de Suert TriTourren parte hartu zuen asteburuan Katalunian, Pirinioetako triatloi garrantzitsuenean, half distantzian (1,9 km-90 km-20 km). Oscar Marquezek irabazitako proban (4:54:27) altsasuarra ikusgarri aritu zen, zazpigarren sailkatu baitzen (5:25:10).



TRI TOUR

Campusari, agur

FUTBOLA Gaur despedituko da Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak antolatutako udako futbol campusaren bigarren txanda. 13 eta 15 urte bitarteko 25 gaztetxo futboleko trebatu dira Dantzalekun, Maalen Beraza eta Aitor Lara monitoreekin. Bero itogarriari aurre egin behar izan diote, futbola igerilekuetako bainuekin tartekatuz.





Beriainen eta Santa Marinaren ikuspegi zoragarria parapentetik. UTZITAKOA

Oinez eta Hegan, Lakuntzan

PARAPENTEA Euskal Herriko Oinez eta Hegan Parapente Txapelketako Nafarroako Txapelketa hartuko du Lakuntzak uztailaren 30ean eta 31n. Txapelketaz gain, parapentea gizarteratu nahi dute eta erakusketa prestatzen ari dira

Maidar Betelu Ganboa LAKUNTZA Lakuntzak Euskal Herriko Oinez eta Hegan Txapelketa hartuko du uztailaren 30ean eta 31n, eguraldiak uzten badu. Txapelketa liga bat da, eta asmoa Euskal Herriko herrialde bakoitzean txapelketa bana egitea da. Hortaz, Nafarroakoa da Lakuntzakoa.

Lakuntzako alkatea, Patxi Xabier Razkin Sagastibeltza, Sakanako Baiza Parapente Taldeko kidea da, parapentelaria edo hegalaria, berak esaten duen bezala, eta proba Lakuntzara ekartzearen arrazoiak aipatu ditu. "COVID19 pandemiaren aurretik, Euskal Herriko Oinez eta Hegan Txapelketako Nafarroako txapelketa Sakanan egin genuen. Tartean Baiza egon zen antolakuntzan. Proba Uharte Arakilgo erreka ondotik ateratzen zen eta Arbizuko kanpian des-

peditzen zen. Baina konturatu ginen ikusle gutxi zeudela, gure kirola ez genuela behar bezala gure herrietan erakutsi. Pandemiaren ondoren Euskal Herriko Txapelketa berriz antolatu da, eta antolatzaileek, Parapente Federazioak eta hiruzpalau klubek, deitu zuten Lakuntzan ekitaldia hartzeko prest ote geunden galdetzeko. Baiezkoa eman, eta hemen gaude" dio Razkinek.

Hike and fly modalitatea

Euskal Herriko Oinez eta Hegan Txapelketan, izenak dioen be-

MODALITATE HONETAN, PARAPENTELARIEK MATERIALA OINEZ IGO BEHAR DUTE AIRERATZE GUNERA

zala, parapentelariak oinez igo beharko dira haizeratze gunera. "Hike and fly bezala ezagutzen da parapente modalitate hau, euskaraz oinez eta hegan. Parapentelariak korrika abiatzen dira aireratze gunera, parapentea eta materiala gainean darmatzatela. Antolakuntzak zehaztutako ibilbide bat osatu beharko dute, balizatuta edo markatuta dagoena. Hau da, baliza horietatik pasa beharko dira, normalean mendi tontorretan kokatzen direnak. Lehen balizara korrika igoko dira, hortik aireratuko dira, eta haize baldintzak onak badira, beste balizetatik hegan pasatu ahal dira, balizek GPS-a dutelako eta parapenteak hortik pasatu direla markatuko dutelako. Ezin badira hegan baliza horietara heldu, oinez edo korrika igo beharko

lirateke hurrengo baliza horretara, eta berriz hortik aireratu. Helmugara edo golera –horrela deitzen zaio– lehena iristen dena izango da txapelduna" azaldu du Razkinek. Hike and fly modalitate gogorra da, ez bairik gabe. "Parapentelari hauek hegalaria-atletak dira, guztiz. Mendi ibiltzen den jendea da, oso sasoitsu dagoena. Oraindik ez dakigu, baina Lakuntzara hurbilduko diren partaideak dozena inguru izango direlakoan nago" gaineratu du.

Euskal Herriko Oinez eta Hegan Txapelketan irteera puntua eta helmuga, gol izenekoa, berbera izango dira: Lakuntzako plaza. Kokapena ikusita, Beriain edo Aralarko San Miguel izango dira aireratu beharreko balizak, ziurrenik. "Antolakuntzak egunean bertan finkatzen du egin beharreko ibilbidea, eguraldiaren eta haize egoeraren baldintzen arabera. Hasiera batean Beriainera igotzea litzateke asmoa, Beriainetik aireratu eta hegan egin, eta beste baliza bat San Migelen egotea, San Migeletik pasatu eta Lakuntzako golera iristeko. Baina eguna iritsi arte, ezin da jakin" gaineratu du Razkinek.

Haize egoerak baldintzatuta

Haize egoeraren baldintzen arabera lasterketa guztiz aldatzen da. "Izan daiteke hegaldi bakarra izatea. Hau da, baldintzak onak badira eta aireratzean altuera asko hartzen bada, hau da, pentsa Beriainen 2.500 m edo 2.800 m hartzen dituzula, korrante termikoen bidez gai izango zara San Migeleko balizara heltzeko eta segidan Lakuntzako golera hegan heltzeko" azaldu du Razkinek. Hori idealena litzateke, baina baldintzak paregabeak izan beharko lirateke.

Baldintza onenak haize gutxi egotea eta egun termikoa izatea dira. "Termika, azken finean, haize korrante bertikal bat da. Termikak sortzen direnean, putreak bezala, termikaren barruan bueltak ematen hasten zara. Horiek dira proba honetarako baldintzarik onenak: haize gutxi, eta egun termikoa" berretsi du.

TXAPELKETAREN AITZAKIAREKIN PARAPENTE EZAGUTARAZI NAHI DUTE, KIROLA ZABALDU

Halako ibilbide bat zenbat denboran egin daitekeen galdetuta, ezin dela aurreikusi dio. "Ezingo nuke kalkulatu. Hau ez da puntu batetik bestera zuzen joatea. Haize baldintzen arabera da, guztiz. Agian San Migueleraino joateko Irañeta aldera jo behar duzu eta gero bueltatu... eta termikak bilatu behar dituzu haraino iristeko. Baina Beriainen sekulako termika harrapatzen baduzu eta metro asko hartzen badituzu, bakarrik planeatzen San Miguelera iritsiko zinateke. Baina hala ez bada, korrante termikoak bilatu behar dituzu. Egunean arabera da erabat" azaldu du.

Lakuntzan jokatu den probak bi egun ditu. Horrek ez du esan nahi partaideek bi egunetan atara beharra dutenik. "Egunean eta baldintzen arabera parapentelari bakoitzak bere erabakia hartuko du. Agian soilik egun batean aterako da, edo bitan..." dio Razkinek.

Ibilbidea, egunean

Euskal Herriko Oinez eta Hegan Txapelketako egitaraua ez dago itxita, egunean bertan zenbait erabaki hartuko baitira, eguneko baldintzen arabera: egin beharreko ibilbidea, tracka, balizak eta ordutegia, esaterako. "Goizean zehaztuko da guztia, speaker batek emango du guztia berri, baina printzipioz, eguerdi aldera lehenengo aireeratze gunera iristea da asmoa, baldintzak termikoak aktibo jartzen direnerako. Ez du zentzurik oso goiz igotzeak korrante termikorik ez izateko" azaldu du Baiza taldeko kideak.

Normalean, partaide guztiak batera ateratzen dira, "eta gero bakoitzak erabakitzen du noiz aireratuko den. Baldintza onak ez badira, itxaroten geratzen dira. Hau da, bakoitzak bere estrategia lantzen du". Eguraldi guztiz txarra egiten badu, jakina, proba atzeratuko litzateke. "Beste data bat bilatzen da".

Parapente erakusketa

Txapelketa jokatzeko den bitartean, Baiza Parapente Taldeko kideak parapenteari buruzko erakusketa egingen dute plazan. Parapentea ezagutarazi nahi dute, kirola zabaltzeko. "Txapelketako partaideak ateratzen direnetik helmugan lurreratzen diren arte bi, hiru, lau... ordu pasa daitezkeenez, tarte horre-



Patxi Xabier Razkin Oludenizen, Turkian, Blue bay deituriko paraje zoragarrian. UTZITAKOA

tan erakusketa jartzea pentsatu dugu" azaldu du Razkinek. Lakuntzan biltzen direnek parapentean aritzeko erabiltzen den materiala, tresnak eta gailuak gertutik ikusi eta ukitzeko aukera izango du: ehunak, sokak... "eta gu galdera guztiak erantzuteko prest egongo gara. Asmoa da parapenteen bilakaera erakustea, eta horretarako hasierako parapenteak ikusgai jarriko ditugu, gaur egunekoetara iritsi arte. Horrela, gure kirolaren bilakaera ikusiko da, mate-

rialetan egon den hobekuntza eta eboluzioa. Oihalak, ala delta, parapentearen beste modalitate bat, biplazak edo bi pertsonendako parapenteak, motordunak... denetatik jarriko dugu ikusgai, eta galdera guztiak erantzungo ditugu. Beraz, gure kirola ezagutzera gonbidatzen ditugu sakandarrak" esan du.

Baiza Parapente Taldea

Baiza Parapente Taldeak 70 kide inguru ditu, kopuru ederra. "Ez du ematen, baina jendea bagau-

de. Baizan ez dago bakarrik Sakanako jendea; Arabako, Gipuzkoako eta Iruñeko jendea dago ere. Azkenean gure zonaldea, Sakana, parapenterako pribilegiatua da eta horregatik jendea gurera etortzen da" dio Razkinek.

Norbaitek parapentearen munduan hasi nahi badu, "Sakanako edozein hegalarirekin hitz egin-gino nuke aholkua eskatzeko. Sakanan bi parapente eskola daude aukeran. Sare sozialetan, taberna eta komertzioetan iragarkiak daude, ikastaroak eta biplaza

igoerak eskainiz". Mundu honetan hasteko ikastaroa egitea ezinbestekoa da. "Beti. Hori derigorrezkoa da. Kirol honetan, normalean, ez dago autodidaktarik" nabarmendu du.

Askatasuna

Parapenteak zer ematen dio galdetuta, erantzun azkarra du Razkinek: "Jende guztiak erantzuten duena erantzungo dut: askatasuna. Parapenteak sekulako askatasuna ematen du. Aieratzen zarenean arazo guztiak ahazten dituzu, guztia ahazten duzu eta hor zaude, hegan, libre". Nonbait, ez da bertigo sentsazio hori nabaritzen. "Hau ez da adrenalina kirol bat. Ez da parakaidismoa bezala, hegazkin batetik salto egin eta sekulako erorialdi potentea duzula. Hemen ez. Normalean oso suabe aieratzen zara, eta oso lasaia da. Hegaldiak oso lasaiak izaten dira normalean, ez dago inolako adrenalinarik. Ettxeko hamakan bezala zaude, baina airean. Nahi izanez gero baldintza gogorragoak bilatu ahal dituzu, haize gehiagorekin hegan egitea, esaterako, baina hori bakoitzaren araberakoa da" dio irribarrez.

Razkinek Lakuntzan hilabete bukaera izango den Euskal Herriko Oinez eta Hegan Txapelketara gerturatzeke gonbitea berretsi du. "Jendea animatu dadila Lakuntzatik buelta eman eta parapentea gertutik ezagutzera".

Parapente modalitateak

- Hegaldi librea.
- Cross countrya. Track baten bidez jarraitu beharreko ibilbidea, balizak jarraituz.
- Oinez eta hegan, hike and fly. Aieratze guneetara oinez joan behar da, materiala gainean.
- Egun askoko probak. X-Alps, Alpeetako 1.300 km-koa edo X-Pyr, Pirinioetan, Hondarribi eta Girona lotzen dituen, 600 km-tan.
- Biplaza. Bi pertsonendako hegaldiak.
- Ala Delta. Hegan egitea, planeatuz.
- Hegaldia motorrarenkin. Parapente motordunak.
- Speed fly. Bela txikiekin aieratu eta orografia jarraituz jaisten dira.
- Parapente akrobatikoa. Denetarik akrobaziak.

"PARAPENTEAK ASKATASUNA EMATEN DU, SEKULAKOA. ETA LASAITASUNA" PATXI XABIER RAZKIN



ASPE

1.500 litro olio Asperendako

PILOTA Urzante desafioan Aspe gailendu zitzaion Baikori, hiru partidak irabazita. Lau eta erdian Peio Etxeberriak 14 eta 18 irabazi zion Peña II.ari; Ezkurdia-Martijaren eta Urrutikoetxea-Imazen arteko partida zirraragarrian, 21era berdindu ondoren azken tantoa sakandarrek lortu zuten, ikuskizun ahaztezinean. Eta buruz buru Zabalak 1 eta 18 irabazi zion Alberdiri.



MIKEL LASARTE

Sanferminetan ongi

HERRI KIROLAK Sanferminetan Foru Plazan jokatu diren herri kirol txapelketetan txukun aritu dira sakandarrak. Mikel Lasarte hirugarren sailkatu zen Nafarroako Motozerra Txapelketan, egindako lanarekin pozik. Bestalde, Aitor Oiarbide hirugarren izan zen

Nafarroako Harri Jasotze Txapelketan eta Amia Razkin eta Joritz Razkin laugarren kadeteen mailako Nafarroako Trontza Txapelketan. Atzo, osteguna, Aritz Oiarbide eta Amets Aristizabal Nafarroako 3. Mailako Aizkora Txapelketako kanporaketan aritu ziren.

FESTAK

ITURMENDI

KARMEN FESTAK

GARILAK 15 Ostirala

KARMEN BEZPERA EGUNA

11:30 Hegazti harraparien ikuskizuna, herriko plazan.
13:00 Auzatea Aritzaga elkartearen eskutik, plazan.
17:30 Kadeteen mailako III. Iturmendi Saria txirindularitza lasterketa, Burunda Txirindularitza Taldeak antolatuta.
19:30 Auzatea Aritzaga elkartearen eskutik trikitilariak girotuta, plazan.
21:45 Zezensuzkoa.
22:00 Herri afaria Aitzkoazar elkartek antolatuta.
00:00 Gozategi taldearen kontzertua.
01:30-02:30 DJ Serguey.

GARILAK 16 Larunbata

KARMEN ETA HAURREN EGUNA

12:00 Karmen ama birjinaren omenezko meza.
12:00 Haurrendako jokoak eta puzgarriak, frontoian.
13:00 Auzatea, plazan.
13:00 Oihuarima dantza taldearen emanaldia.
17:00 Haurrendako jokoak eta puzgarriak, frontoian.
18:15 Haurrendako ginkana, plazan.
20:00 Auzatea Ximonena gaztetxearen eskutik, plazan.
20:00-22:00 Trikidantz taldearen musika emanaldia.
20:15 Herriko haurrendako bonba japoniarrak.
22:00 Zezensuzkoa.
00:00-03:30 Trikidantz taldearen musika emanaldia.

GARILAK 17 Igandea

JUBILATUEN EGUNA

10:30 Herriko jubilatuen omenezko meza.
11:15 Herriko txistulariekin kalejira.
12:15 Iturmendiko zortzikoaren dantzaldia.
12:30 Auzatea Santa Marina elkartearen eskutik, plazan.
14:30 Kalderete txapelketa. Oharra: Kuadrilla bakoitzak bere kamiseta jantzi dezala.
18:00 Eztanda txarangarekin kalejira herrian zehar.
20:00 Auzatea Santa Marina elkartearen eskutik, plazan. Puntu Morea, plazan.
20:00-21:30 Puro Relajo taldearen kontzertua.
22:00 Zezensuzkoa.
00:00-03:30 DJ Bull.

GARILAK 18 Astelehena

SANTA MARINA EGUNA

10:00 Santa Marinako erromeria iragartzen duen suziria.
12:00 Meza, Santa Marina ermitan.
12:45 Ardo tazikak herriko trikitilariak girotuta.
14:00 Bakoitza bere lekuan bazkaltzera.
18:00 Herriko trikitilariak dantzaldia, Santa Marinako plazan.
19:00 Auzatea Burunda ehiza barrutiaren eskutik, herriko trikitilariak girotuta, San Pedron.
20:00 Elektrokela Elektrotxarangarekin kalejira.
22:00 Ajoarriero herri afaria.
00:00 Su artifizialak eta jai bukaerako traka.
00:00-03:30 DJ Serguey.



ITURMENDI Ximona Gaztetxeak botatako txupinarekin hasiera eman zioten Iturmendiko Festetako Gazte Egunari. Arratsaldean, Karmen omenezko festak hasi zituzten Burundako herrian. Astelehenera arte iraunen dute.

IRURTZUN

HERRIKO FESTAK

UZTAILAK 20 Asteazkena

11:30 Haurrendako jokoak, Barazki Gunean.
IAGAk antolatuta.
13:00 Barazki Gunearen irekiera, trikitixekin.
IAGAk antolatuta. Garagardo artisauen dastatzea jaietan zehar.
15:00 Pikuxarrek antolatutako herri bazkaria, Piku plazan.
Izena ematea Pikuxarren, 23 eurotan.
17:00 Irurtzongo festak 2022 kartelen erakusketa, udalbatzaren aretoan.
17:30 2021. urtean jaiotako haurrei zapiak eta erraldoien eta



Aralarko San Migel santutegia. ARTXIBOA

Haurrak San Migel aingeruari aurkeztuko dizkiote

Pandemiak eragindako bi urteko etenaren ondoren, Deun Mikel Goiaingeruaren Kofradiak Aralarko Aingeruari Haurren Aurkeztapena antolatu du igandean. Ekitaldi horren helburua da Aralarko santutegiarekiko lotura bereziaren transmisioa egitea. Aurtengoa hamazazpigarren edizioa izanen da. Aldez aurretik izena ematen dutenek elizkizunaren ondoren umeen izen abizenak grafia ederrez idatzitako pergaminoa jasoko dute. Horretarako, 609 406 780 telefono zen-

bakira hots egin edo basanoa. josemari@gmail.com e-posta helbidera idatzi daiteke.

Garilaren 17an haurrak aingeruari aurkeztu, haurrei hura gurtzeko aukera eman, eta, akaberan, haurraren izen-abizena duen pergaminoa emanen diete. Izena ematen ez dutenek eta hilaren 17an zuzenean aurkeztapenera joaten direnek, izena eman eta pergaminoa jasotzeko aste pare bat itxaron beharko dute. Hura santutegiko sakristian jaso beharko dute. Pergaminoa jasota gelditzen da umea Aralarko aingeruaren lagun dela eta haren bizi guztirako babesa eskatzen dela.

▼ UZTAILAK 28

Udako
guaixe
berezia

Zure negozioa hemen

KONTAKTUA
946 564 275 | 661 52 32 45
publi@guaixe.eus



ALTSASU Uztailaren 2an eraman zuten Erkudengo ama birjinaren irudia elizara, eta bederatziurrena pasata uztailaren 10ean, erromerian, ermitara eraman zuten bueltan. Altsasuarrak baselizaren inguruan hamaiketakoan bildu ziren.

buruhandien konpartsaren ipuina banatzea.

18:00 Jaiak iragartzeko txupinazoa. Kalejira eta ekitaldiak: erraldoi eta buruhandien konpartsa, gaiteroak eta Orritz dantza taldea, EZK txarangaren eskutik.

20:00 Orritz dantza taldearen emanaldia.

21:00 EZK txarangarekin dantzaldia.

21:45 Jauziak.

22:00 Larrain Dantza.

22:30 Zezensuzkoa, kultur etxetik Gernika parkera.

00:00-04:00 Dantzaldia Trikidantz taldearekin.

UZTAILAK 21 Osteguna

10:00 Dianak

11:00-12:30 Haurrendako Margo Lehiaketa, plazan.

Oharra: materiala antolatzaileek jarriko dute.

11:30 Helduendako joko eta jolas herrikoia, Gernika plazan.

Oharra: izena ematea jolasak egiten diren tokian.

12:00-14:00 Haurrendako parke handia.

12:45 Bermut musikala, Chuchin Ibañez eta Garibaldirekin, Gernika plazan.

14:30 Gazte bazkaria, Barazki Gunean.

Oharra: IAGAk denak pirata moztarroaz jantzeko deia egin du.

16:30 Kalejira Barazki Gurdiarekin, Barazki Gunean.

IAGAk antolatuta.

17:00 Aurpegi margoketa, Foru plazan.

Irurtzungo Pintura gela antolatuta.

17:00-19:00 Haurrendako parke handia.

18:30 Herri kirolak, Gernika plazan.

19:00 Ginkana, Barazki Gunean.

IAGAk antolatuta.

19:30 Haurrendako txokolate jana, Foru plazan.

Oharra: zeliakoendako egokia.

20:00 Xaiborren musika emanaldia.

22:00 Larrain dantza.

22:30 Zezensuzkoa, kultur etxetik Gernika parkera.

23:00 Kontzertuak: Txartoak eta Titadine Punk Oi! eta Rock & Roll Musika Jartzailea.

IAGAk antolatuta.

24:30-03:00 On Fiesta taldearen disko festa.

03:00 X. Txapel jaurtiketa lehiaketa, Barazki Gunean.

IAGAk antolatuta.

UZTAILAK 22 Ostirala

10:00 Dianak.

11:30 Erraldoi eta buruhandien konpartsa.

13:00 Pikuxarrek antolatutako Bermouth musikatua Gaitaberri Brass taldearekin, Piku plazan.

14:00 Kalderete lehiaketaren epaia.

Oharra: izena ematea 13:00ak arte, arkupeetan.

14:30 Kaldereten bazkaria.

Oharra: Antolatzaileek ogia, ardoa, mahaiak eta aulkiak jarriko dituzte.

Izena ematea udaletxean egin beharko da uztailaren 19ra arte. Plazako karpa izena ematen dutenendako izanen da.

17:00 Bazkalondoa, kalejira eta kale animazioa, Rock kalean bandarekin.

18:00 Gorriti eta bere animaliak, Gernika plazan.

18:30 Erremontista profesionalen

jaialdia: Nafarroako Foru Komunitateko XVII. Torneoko kanporaketa.

Sarrera libre.

19:00 Karaokea, Barazki Gunean. IAGAk antolatuta.

20:00 Dantzaldia Jamaica orkestrarekin.

22:00 Larrain dantza.

22:30 Zezensuzkoa, kultur etxetik Gernika plazar.

23:30-02:30 Bokata autogestionatua eta gazte gaua musikarekin, Gernika plazan.

23:30 Kontzertuak: Vaire, Katez eta Djungle.

IAGAk antolatuta.

00:00-03:00 Dantzaldia Jamaica orkestrarekin.

BAKAIKU

SANTIO FESTAK

UZTAILAK 22 ostirala

18:30 Play Back erakustaldia, plazan.

19:00 Txorongo Txaranga, herrian zehar.

19:00 Festen hasiera: Etxajua, bonba japoniarrak eta buruhandiak. Bakaikuko Zortzikoa

20:00 Auzatea, Bakaikuko Ehiztari elkartearen eskutik. Txorongo Txaranga.

22:00 Afaria: Etxean eta bizirik nahi ditugu, plazan.

00:00-04:00 Kontzertuak: Deserrite, Muga Zero eta Nafarroa 1512.

OLAZTI

GAZTE EGUNA

GAZTETXEAK ANTOLATUTA

UZTAILAK 22 Ostirala

12:00 Txupinazoa. Poteo latza.

Bargagaingo Igoera, jatorrira

Altsasuko Mendigoizaleak taldeak antolatuta, Bargagaingo Igoera izanen da igandean, uztailaren 15ean, 09:00etatik aurrera. Udaletxe parean etxajua lehertuko dute, eta mendirantz abiatuko dira mendizaleak. Erkudengo erromeria ospatu eta astebetara egiten dute Urbanas dagoen Gurutzeria erromeria. 1960. urtean hasi zen antolatzen.

Altsasuko Mendigoizaleak taldeak Bargagaingo betiko bidea erreskuratu nahi du: autobia azpiko tunel txikia pasata eskuinera egin orde, ezkerredera egin behar da. Betiko bidea suabeagoa omen da. Aste honetan bidea markatu dute, eta bertatik igotzera eta hemendik aurrera bide hori erabiltzeko eskatu du.

Behin Bargagainera igotzean, meza izanen da, eta ondoren hamaiketako egiten da. Udalak ardoa eta tazak jartzen du, eta Mendigoizaleak taldeak gazta eta ogia. Ohikoa denez, urdaiazpikoa zozketatuko da, eta hamaiketakoaren ondoren txistuen eta zortzikoen txanda izango da.



AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / kultura@guaixe.eus

OSTIRALA 15

IRURTZUN Bilera.

Kilikiak, herensugea eta zaldikoak eramateko bilera.
20:00etan, erraldoien biltegia.

LARUNBATA 16

OLAZTI Koskobilara bisita gidatua.



BAZTERRETIK

JUANKAR LOPEZ-MUGARTZA

jaiak bai, (Minervaren) borroka ere bai !!

Udan gaude, jaietako garaian. Zabal dezagun gure festa-nahia gure kaleetara Bako eta Dioniso jainkoei beren leku gorena emanez, baina ahantzi gabe Minervari kulturaren aldeko borrokan eman behar zaion lekua, Sarako Etxeberri aholkatu zigun bezala.

Balia gaitezen euskaraz hitz egiteko, irakurtzeko eta idazteko, eta egin ditzagun geure Idoia Granizo bertsolari eta idazlearen hitzak: «Idaztea amets egitea da... gazteak gara eta idazleak!», Sakanan idazle gazte onak baitaude, etorkizun oparoa ziurtatuta dutenak (Etxarriko Izane Mendiburu, Uxuri Mendiburu, Irati Loiarte, Julene Orella eta Ane Ixurko, Arbizuko Ondatz Reparaz, Altsasuko Irati Landa, Bakaikuko Aiara Ondarra, Iturmendiko Tania Otero, guztiak aurtengo Maria Markotegi sariaren irabazleak).

Izen horiei oraingo idazleak (Olasagarre, Suarez) eta Joxemiel Bidadorrek landu zituen lehengo garaietakoak gehitu behar zaizkie, besteak beste: Inozenzio Aierbe, Blas Alegria, Biktorkiano Huizi, Jesus Flores, Santiago Ezkerra, Felipe Araña eta Bidador bera, gartzetan

Izena ematea udaletxean.
10:00etan, 12:00etan edo
16:00etan, Orna iturria.

IZURDIAGA Kale ikuskizuna.

Parena konpainiaren Siroko ikuskizuna.
20:30ean, plazan.

IGANDEA 17

IRURTZUN Bakarrizketa.

Lorena Arangoaren Tera Pia ikuskizunaren emanaldia.
20:00etan, Piku plazan.

ALTSASU Euskal preso eta iheslariak etxera elkarretaratzea.

20:00etan, plazan.

ASTELEHENA 18

IRURTZUN Larraín dantza eta jauziak ikasteko ikastaroa.
20:00, Atakondoako gimnasioan.

IRURTZUN Gozamez programaren Ur festa goxoa. Afaria, bainua, jokoak eta disko festa. Etxetik afaria eraman, edariak doan.
20:30etik 00:00etara, igerilekuan.

ALTSASU Osasungintza publikoa defendatu! elkarretaratzea. Sakanako Osasun Publikoaren Aldeko plataformak deituta.
12:00etan, osasun etxearen aurrean.

ASTEARTEA 19

OLAZTI Abentura ekintzak. Orientazio froga. 12 eta 16 urteko gazteendako. Izena ematea udaletxean.
10:30etik 13:30era, Memoria Historikoaren parkean.

ALTSASU Batzarra. Jai batzordearen bigarren batzarra.
18:00, Burunda frontoian.

ETXARRI ARANATZ Gozamez programaren Ur festa goxoa. Bainua eta ur jokoak, bokata eta alkoholik gabeko edaria eta txokolate iturria.
20:30etik 00:00etara, igerilekuan.

IRURTZUN Udako zinea. A todo tren! filmaren emanaldia.
22:00etan, Foru plazan.

ASTEAZKENA 20

OLAZTI Abentura ekintzak.


OSTEGUNA 21

ALTSASU Liburu aurkezpena. Koldo Zuazoren Burundako Hiztegiaren aurkezpena.
19:00etan, Gure Etxea eraikinean.


UHARTE ARAKIL Gozamez programaren Ur festa goxoa. Bainua eta ur jokoak, bokata eta alkoholik gabeko edaria eta txokolate iturria, eta musika.
20:30etik 00:00etara, Itxesi igerilekuan.

EGURALDIA ASTEBURUAN


Ostirala, 15




Larunbata, 16



Igandea, 17



Astelehena, 18



EZ IZAN BURUGOGORRA!
ZORIONDU MAITE DUZUN HORI
zorion@guaixe.eus

IRAGARKI SAILKATUAK

LANA/NEGOZIOAK

LAN ESKAINTZA

Iturmendiko Udalak zerbitzu anitzetako langilea kontratatzeko deialdia zabaldu du: Oposizio lehiaketa bidez beteko da lanpostua. Interesa dutenek euskara jakin beharko dute (B2 maila). D mailari dagokion soldata eta Iturmendiko Udaleko plantilla organikoan jasotzen diren osagarriak ere jasoko ditu. Udalak gainontzeko gainditutakoekin lan politza osatuko du aldi baterako kontratazioak egiteko. Eskabideak uztailaren 30era arte aurkeztu daitezke.

IKASTAROA

Intiak antolatutako nekazaritza eta abeltzaintzan hasteko ikastaroan izen emateko epea zabalik: Sektorean profesionalki hasi behar dutenek beharrezko trebakuntza lortzeko helburuarekin egiten da. Gazteei zuzendutako ikastaroa da, formatu erdipresentziala, 200 ordukoa izango da eta abuztuan hasten da. Interesa baduzu deitu 948 013 058 tfnora 8:30tik 14:00etara ordutegian. Ikastaroak 425 euroko kostua du.

LEHIAKETA

Iruñeko Udalak Egile Berrientzako XXXII. Euskarazko Literatur Lehiaketa: Egileek lan bana aurkezten ahalko dute modalitate bakoitzeko. Idazlanek gai librea izan dute eta euskaraz idatziak izan beharko dute, jatorrizkoak eta argitaratu gabeak. Sari modalitateak: poesia (lanak gutxienez 200 bertso-lerro izan behar ditu) eta narrazioa (lanak gutxienez 15 orri izan behar ditu Arial letra mota, 11 tamainakoa, tarte bikoitzaz). Lehen saria 2500 eurokoa eta bigarren saria 1000 eurokoa izango dira modalitate bakoitzeko. Epea urriaren 28an amaituko da. Parte hartu nahi baduzu www.pamplona-cultura.es web orrian da goen inprimakia bete behar da. Informazio gehiago web orri horretan ere.

OHARRAK

Etzarri Aranazko Udalak jakinarazi du festetan

buruhandiak eramateko pertsonen bila dabilela: Festetako eguerdi guztietan atera beharko lukete. Ardura hori hartu nahi dutenek 12 urteak beteak izan behar dituzte. Udaren deialdian interesa dutenek hilaren 21era arte eman dezakete izena udaletxean, 10:00etatik 14:00etara.

Etzarri Aranazko festetako jubilatuen bazkarirako txartelak eskuratu daitezke: Udaletxeko bulegoan uztailaren 20ra arte jaso daitezke 10:00etatik 14:00etarako ordutegian. Bazkaria agorriaren 3an, Aitun-amiñan eguna izango da. Etzarri Aranazten erroldatuta eta 65 urtetik gorakoak dohainik joan daitezke bazkaltera, baina, derrigorrezkoa da txartela eskuratzeko. Balditza betetzen ez dituztenek 26 eurotan erosi ahal dute bazkarirako txartela.

Arakil bailaren egunezko bazkarian izena emateko epea zabalik: Uztailaren 25ean ospatuko den jai egunaren barruan bazkarira joan nahi dutenek 634 584 226 edo 948 500 101 telefono zenbakietara deitu edo arakilkultura@gmail.com epostara idatzi dezakete.

Olatziko festetako haur eta jubilatuen bazkarietarako txartelak eskuragai daude: Santa Ana festen barruan, Olatzagutiko Udalak bi bazkari antolatu ditu, bata hurrendako eta bestea jubilatuentzako. Haurren bazkaria Memoria Historikoaren parkean izanen da hilaren 25ean, aste-lehenarekin, 14:30ean. Seme-alabak han bazkalteza nahi dutenek bi euro ordaindu beharko dituzte udaletxean bulego ordutegian, 10:00etatik 14:00etara. Udalak zehaztu duenez, zazpi urtetik beherako haurrek pertsona heldu batekin egon beharko dute bazkarian. Bide batez jakinarazi du haur bazkaria antolatze laguntza behar duela. Jubilatuentzako bazkaria hurrengo egunean, uztailaren 26an, 14:30ean izango da Kamiogaina jubilatuekin. Udaletxean edo elkarteetan bertan erosi behar da txartela 11 euroren truke.

Lakuntzako festetan 2021 urtean jaiotako haurren harreraren prestaketa: Lakuntzako Udalak festen hasieran joan den urtean jaiotako umeei harrera egiten die zapi bana oparituz. Erroldatuta ez dagoen haurren batek zapi jaso nahi badu udaletxean izena eman beharko du. Izen ematea garilaren 22an amaitzen da.

Nafarroako Torturatuaren Sarearen kanpaina: Elkarrekin batean batu dira eta gastu guztiei aurre egin ahal izateko dirua biltzeko kanpaina bat hasi du. Ekarpinak kontu korronte honetan egin daitezke: ES23 3035 0058 3905 8011 6401.

Bakaikuko festetan Playback erakustaldia: festetako lehenengo egunean, uztailaren 22ko arratsaldean, playback erakustaldia egingo da plazan, adin guztiei zuzendua dago. Udaletik dantza prestatzen hasteko eskatzen dute. Animatu!

Lakuntzako festetako Playback lehiaketan parte hartzeko izen ematea zabalik: Abuztuaren 28an, igandean, egingo den lehiaketan parte hartzeko partaideen izenak eta aukeratutako kanta jakinarazi behar da emailak_lakuntzakultura@gmail.com helbidera idatziz abuztuaren 15a baino lehen. Baldintza bakarra kanta euskaraz izatea. 3 sari egongo dira, animatu eta parte hartu!

Etzarriko jaietako XXVII. Playback txapelketa: Abuztuaren 2an, asteartean, atsaldetik 19:00etan egingo den lehiaketan parte hartzea animatzen dute Udaletik. Sariak ko-reografia onenari 100 euro, euskal abesti onenari 100 euro eta parte hartzen duen talde bakoitzari 25 euro. Izen ematea kultura@etzarriaranatz.eus helbidean edo egunean bertan 18:30etik aurrera eszenatokian. Musika CDan edo USBan aurkeztu behar da. Epaimahaia herriko eragile desberdinez osatuta egongo da.

iragarki@guaixe.eus

www.iragarkilaburak.eus

ESKELA



Manuela Iglesias Fraile

Zurekin gozatutakoa
betiko gurekin izango da

Alabak; Hermi, Loli, Blanki eta Maite
ilobak; Jokin (†) eta Iñaki

Altsasun, 2022ko uztailaren 12an

ESKELA



Ignacio Turunbay Andueza

Lakuntzako alkate ohia

Eskerrik asko Lakuntzari
emandako guztiagatik



ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75
edo eskela@guaixe.eus

- Eskelen tarifak: 50,82 € / 96,80€ / 130,68 € prezio hauek BEZa barne dute.
- Bazkideek % 10eko deskontua dute.
- Eskelak jasotzeko azken eguna: Osteguna goizeko 11:00k baino lehen.

JAIOTZAK

- Khalil Ban Amar, uztailaren 9an Altsasun

HERIOTZAK

- Ignazio Turunbai Andueza, uztailaren 12an Lakuntzan
- Manuela Iglesias Fraile, uztailaren 12an Altsasun
- Maria Dolores Gozalo Perez, uztailaren 12an Olaztin
- Paulino Gil Bañares, uztailaren 13an Olaztin

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN
JASOTZEN DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN
JAKINARAZI DEZALA.



«Bizitzan badira une batzuk
zeinetan norbait
ondoan behar dugun»

BEILATOKIAK

ALTSASU **ETXARRI ARANATZ**
Santa Cruz, 6 Nagusia, 2

948 05 90 90 - www.izarratanatorio.com

IRACHE
tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu – Iruztzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

“Betidanik”

- ☎ 948 19 70 70
- ✉ @Grupolrache
- 📘 Grupolrache
- 🌐 www.tanatoriosirache.es

Askatasunaren artistak

Gozamenez programaren Ur festa goxoaren barruan Donatella Maní eta Albina Stardust drag queen-en ikuskizuna izan zen Altsasuko igerilekuetan. Musikaren eta esperimentazioaren bidez aske maitatzeko eta bizitzeko aldarrikapena egin zuten.

Erkuden Ruiz Barroso ALTSASU

Zuzenekoaren gauzei eta arazo teknikoei aurre eginez, Donatella Maní eta Albina Stardust artistek Drag ikuskizuna egin zuten Gozamenez programaren Ur festa goxoaren ekimenean, Altsasuko Dantzaleku igerilekuetan. Espektakulua hiru hitzekin deskribatu du Donatellak: "Oso musikala, oso didaktikoa eta oso dibertigarria", baina zerbait gehiago izatea ere nahi zutela azaldu du Albinak: "Sortu nahi dugu espazio bat non jendea aske sentitu daitekeen, non jendeak bere luma, bere identitatea erakuts dezakeen, non den-denok elkarrekin egongo garen eta nahi duguna izateko libre izango garen". Altsasu "askatzera" etorri ziren.

Gazteen sexualitatea modu positiboan lantzeko programa da Gozamenez, Albinak horrelako ekimenen garrantziaz hitz egin zuen: "Nik uste dut sexua eta sexualitatea gehiago lantzen ari garela, eta oso garrantzitsua da eta oxala geroz eta gehiago eta hobeto landuko den, baina uste dut garrantzitsua dela sexualitateaz hitz egitea, generoaz eta identitateaz hitz egitea".

Drag

Drag bat, drag queen bat edo artista drag bat generoarekin jolasten duen artista dela azaldu du Albinak. "Gure kasuan, feminitatearekin jolastea gustatzen zaigu, jende guztiari erakusteko izan zaitezkeela izan nahi duzun bezalakoa, izan femenino, maskulino, ezer edo biak".

Gizadia bezain zaharra dela azaldu du Donatellak, baina deitura antzerki isabelinoan sortu zen. "Antzinako Grezian maskararen erabilpena, Erdi Aroan Celestina bezalako pertsonaiak



Donatella Maní eta Albina Stardust drag queen-en ikuskizuna. IÑAKI RUBIO MENDOZA

eta historia zehar ere zenbait pertsonaia modu batera edo bestera drag adibideak izan dira". Antzinako Egipton, esaterako, erregeek ilea guztiz moztzen zuten eta ileordeak erabiltzen zituzten eta Hatshepsut erregina gizon bezala karakterizatzen zen eta ez faraoi emakume bezala. "Hori ere generoarekin jolastea da. Oso atzetik datorren zerbait da". Baina transexualitate eta identitate trans-ak "oso ezkutatuak" izan direla salatu du Albinak.

"Trabestismoa nahiko mainstream izan zen. Beti umorearekin lotutako zerbait zen, ez zen hain aktibista edo politikoa". 1969. urtean Stonewall matxinadaren ondoren LGTB kolektiboarekin elkartu zen eta aldarrikapenak indarra hartu zutela azaldu du Albinak. "Momentu hartan zerbait negatiboa bezala begiratzen hasi ziren; gauarekin lotutakoa, drogekin eta abarrekin. Baina hori gizarteak eman nahi izan dion irudia izan da, ez da benetakoa irudia".

Izaera

Drag bakoitza "oso pertsonala" dela azaldu du Albinak. "Albina Stardustentzat Albina Stardust dago. Nire zati bat da, ileordeekin eta soinekoekin adierazten dudana. Baina ni naizena da". Bere feminitatea adierazteko modu bat dela esan du, "esaten zidatelako ezkutatu behar nuela. Nik ezin nuen feminitate hori erakutsi jendeak gizona bezala ikusten ninduelako: ezin zara feminoa izan, ezin dituzu soinekoak jantzi, ezin duzu ile luzea eraman...". Albina, beraz, hori guztia ateratzeko modua da, "eta modu handian egiteko, gainera". Bere egunerokotasunean Eneko da, pertsona ez-binarioa, eta horren aldarrikapena ere egiten du. "Nire drag-etik asko ikasi dut egunerokotasunean ere". Baina drag-a ez da pertsonaia bat, "ni naiz, baina beste modu batera". Eta nolakoa da Albina Stardust? "Niñata bat da. Tik tok zalea eta Euskal Herriko Lady Gaga izan nahi du, "nik esaten dut banai-zela".

"Bazara, kariño, bazara", erantzun dio Donatellak. Donatellaren kasuan, bere egunerokotasunean gizon binarioa dela esan du, diseinatzailea da eta bere proiektuak egiten ditu, bikote-kidea dauka eta drag-a "errutina horretatik ihes egiteko modu bat da". Donatellak bere izaera-

ren elementu asko dituela azaldu du: "Nik beti esaten dut adineko pertsona bat naizela 22 urteko pertsona baten gorputzean harrapatuta. Orduan, drag-ean *señora* alde hori gehiago da. Nahiz eta egunerokotasunean ere *señora* gauzak ditudan". Izaera hori gustatzen zaio, baina etapak direla esan du ere: "Orain oso *señora* naiz, baina hemendik denbora batera ez dakit nolakoa izango naizen, agian makarra bihurtuko naiz". Instintoak eta nahiak jarraitzen ditu. Donatellak estetika retroa "maite eta aldarrikatzen" du, bizitza estilo bezala ere bai. Elegantea da, baina landa eremuko emakumeak aldarrikatzen dituela gaineratu du Albinak. "Horri buruzko abesti bat egiten ari naiz herri txiki batekoa naizelako, eta bertan ez dugu erreferenterik izan". Musikan sentitzen da gustuen Donatella.

Hasierak

Hamabost bat drag-eko "familia handi" bat osatu dute oso denbora gutxian. Donatella izan zen lehendabizikoa. Maite izan zuen lehenengo pertsona gainditzen lagundu zion drag-ak. "Modu naturalean atera zitzaidan. Batxilergo amaierako galan *diba* handienari izendapena eman behar zidaten, eta esan nuen: *dibineoa* nahi duzue, *dibineoa* izango duzue". Donatellaz jantzi agertu zen, "eta hori izan zen bere jaiotza". Kalera lehenengo aldiz 2017ko Harrotasunaren egunean atera zen. "Oso ongi sentitu nintzen, oso lagunduta, nahiz eta bakarrik joan". Atera behar zen zerbait zen Donatella.

Albinaren kasuan unibertsitatera joan zenean "makillajearekin esperimentatzen" hasi zen. 2018an Iruñeko Zentralen LGTB festa bat antolatu zuten eta, besteak beste, Yogurinha Borova joan behar zen, "erreferente bat". Albinak ez zekien jantzi edo ez eta Donatellari galdetu zion, "bere etxera prestatzera joateko esan zidan". Gau izugarria izan zela esan du Albinak. "Horren ondoren, familia".

"GENEROAREKIN JOLASTEN DUEN ARTISTA BAT DA DRAG, DRAG QUEEN EDO ARTISTA DRAG"



Deserrite taldeko kideak. UTZITAKOA

Sakanako emanaldiak

Deserrite eta Haizkan taldeek atzo kontzertua eman zuten Iturmendin. Sakanako taldeak presente egonen dira datozen egunetako ibarreko festetan:

Uztailak 18, Iturmendi
Elektrokelaren kalejira.

Uztailak 22, Bakaiku
Deserrite, Muga Zero eta Nafarroa 1512 taldeak.

Uztailak 23, Irurtzun
Muga Zero, Nafarroa 1512, Harresi eta DJ Muru taldeak.

Erkuden Ruiz Barroso ALTSASU

2020. urtearen hasieran Iñaki Gasko eta Gaizka Okaña gitarra joleak, Asier Palomino bajista eta Hodei Alegre bateria joleak bildu ziren musika proiektu bat egiteko ideiarekin. "Kantarik ez geneukan, baina zerbait egin nahi genuen", azaldu du Alegrek. Ondoren, Jesus Palop abeslari bezala batu zen. Horrela hasi zen Deserrite taldea. Denbora-rekin baxu jolea aldatuz joan da: Asier Palomino Xuarren sartu zen eta bertan "gogor" egon nahi zuen eta duela zenbait hilabete Haritz Goikoetxeak ere taldea utzi zuen eta Luken Goikoetxea sartu zen.

"Kantaria aurkitu genuen eta... Boom! Pandemiaren guztia etorri zen". Hala ere, ez zuten proiektua "stand by-ean" utzi nahi, eta konfinamenduaren garaian etxetik lanean jarraitu zutela esan du Alegrek: "Ez genuen ezer egin gabe gelditu nahi". Kantak ez zituzten sortu, "konfinamenduak ez zuelako prozesuan asko laguntzen"; baina modu batera edo bestera taldeak aurrera jarraitu zuen. "Abesti bat grabatu genuen, bakoitzak bere etxetik, eta uste dut oraindik Instagramen ari dela".

Baina abestiak sortzeko, taldekideak elkarrekin egon behar dira. "Norbaitek etxean sor dezake melodia bat, eta horren gainean letra bat jarri. Baina melodia hori guztiok batera egiten dugunean ikusten dugu zer datorkion hobeto, zein errima

Sentimendua eszenatokian

2020. urtearen hasieran musika proiektu posible bat bezala hasi eta gaur egun Deserrite talde bere lehenengo diskoaren grabaketarako estudioa hartu du. Momentuz, zuzenekoetan dena ematen du laukoteak.

gustatzen zaigun gehien...". Momentuz, hamahiru bat kanta sortu dituzte, eta orain entseguak zuzenekoak prestatzera eta grabatuko duten diskoa prestatzera bideratzen dituzten arren, sortzen jarraitzen dute.

Kantak

1980ko hamarkadako rock-aren antzeko zerbait egiten dutela esan dute Deserrite taldeko kideek. "Ez dakit hard rock den", argitu du Alegrek. Erreferentziak Barricada, AC/DC, Guns and Roses, Social Distortion eta horrelako taldeak dira, "hortik

"ZUZENKOETAN, ESZENATOKIAREN GAINEAN, INDARRA TRANSMITITZEN DUGU"

hartuta gure soinu propioa eginda". Abestiaren arabera kanta dela gaineratu du Goikoetxeak. Letrei dagokionez, "gaur egun go gatazkak, gertatzen diren gauzak, baina beste modu batera esanda, gure ikuspuntutik". Orain arte sortu dituzte abestietan euskara eta gaztelania uztartu dituzte, baina euskaraz gehiago egiten ari direla azaldu dute. "Gaztelaniazkoak atzean utzi gabe, euskararekin aurrera egin nahi dugu".

Duela gutxi maketa "txiki bat" grabatu zutela esan du Goikoetxeak, haiek entseguetan erabiltzeko, "jendeak galdetzen digu ea zerbait kaleratu dugun". Ekainean Iruñeko Garazi Tabernan eman zuten kontzertuan jendeak diskoa erosi nahi izan zuen. Hortaz, ideia diskoa grabatzea da, eta dagoeneko irailean grabatzen hasteko estudioa har-

tuta dute. Alegre: "Ez ditugu hamahiru abestiak grabatuko, seiren bat grabatzea da ideia, eta EP bat kaleratzea".

Zuzenekoak

"Ni bi kontzertutan egon naiz eszenatokiaren gainean, baina uste dut indarra transmititzen dugula", esan du Goikoetxeak. "Sentimenduak eta emozioak" transmititzen dituztela esan diote Alegri. "Jendeak ikusten gaituenean nabaritzen du". Deserrite taldearen zuzenekoa ezagutzeko modurik onena kontzertu batera joatea dela gaineratu dute: "Ez da derrigorrezkoa,

DAGOENKO HAMAHIRU ABESTI SORTU DITUZTE, ETA IRAILEAN EP BAT GRABATUKO DUTE

baina behintzat behin gure kontzertu batean egon behar da jendea".

Diskoa grabatu arte, taldearen abestiak eta esentzia ezagutzeko modu bakarra kontzertuak dira, eta horregatik zuzenekoak "hobetzen saiatzen" ari direla esan du Goikoetxeak. "Jendea horrekin geratzen delako, eta oso garrantzitsua da". Dagoeneko abestiak kantatzen dituzten zaletuak dituztela esan dute: "Kuadrillakoak eta Elektrokelako kideak oso garrantzitsuak izaten ari dira".

Garaia arabera gehiago edo gutxiago entseatzeko dutela aitortu dute musikariek. Gainera, talde gehiagotan parte hartzen dute ere, eta, beraz, batzuetan geratzea zaila dela esan dute, "baina beti lortzen dugu. Gainera, orain diskoari begira buru-belarri jarri behar gara".

Lehiaketa

Deserrite taldeak Gasteizko Gazte Talent lehiaketa irabazi zuen, eta saria Jimmy Jazz aretoan kontzertua ematea zen. Kontzertu hura La Excavadora taldearekin egin zuten, "besteak beste, Lakuntzako Butonek jotzen du bertan", eta beraiekin "oso gustura" egon zirela esan du Alegrek. "Errepikatzeako asmoz gaude bi taldeak". Iñaki Gasko gitarra jolea da lehiaketara aurkezteko ideia sustatu zuena: "Gustatzen zaio Interneten sartu eta txapelketak bilatzea. Barakaldoko txapelketa bat bidali zigun aurrekoan".

"Orkestakoa esperientzia oso polita izaten ari da"

Leire Bujanda Moro dantzari altsasuarrak Galaxia Musical Orquestan lan egiten du. Udan zehar herriz herri eta festaz festa ariko da plazak animatzen. Besteak beste, sanferminetan emanaldi arrakastatsua egin zuten.

Erkuden Ruiz Barroso ALTSASU

1 Galaxia Musical Orquestako dantzaria zara. Noiz hasi zinen?

Maiatzaren hasieran hasi nintzen. Apirilean taldeko abeslaria eta taldeko kudeatzailea den Maiale- nekin harremanetan jarri nintzen, eta maiatzean entseguetara hasi ginen. Lan asko geneukan; haiek dena prestatuta zuten, baina dantzari berriek hutsetik ikasi behar genuen dena. Bi abeslari, lau dantzari eta teklatu jolea gara taldean, eta bi dantzari berri gara.

2 Eta nola sartu zinen?

Pole irakasleak, Amaiak, galdetu zidan ea nola nuen antolatuta uda, orkestran aritzeko eskaintza bidali ziotelako. Berak ezin zuenez, niri esan zidan. Maialenen kontaktua pasa zidan, idatzi nion, eta bost minututan bere deia jaso nuen. Elkarrizketa bat izan genuen, eta hemen nago.

3 Zenbat dantza ikasi dituzue?

Hogeitik gora, eta oraindik ikasi behar ditugunak. Denetarik egiten dugu: kunbiak, merengeak, 1980ko eta 1990ko hamarkadetakoko abestiak... Dantza asko ikasi ditut, eta aukera bat bezala hartu dut. Beti nahi izan dut beste



Leire Bujanda Moro altsasuarrak Galaxia Musical Orquestako dantzaria. GALAXIA MUSICAL

estilo batzuk ikasi. Aritzek eta Dianak dantza latinoak egiten dituzte, eta haiengandik ikastea esperientzia oso polita izaten ari da; baita gogorra ere, ez delako nire estiloa. Baina asko disfrutatzen ari naiz.

4 Zer esan zizuten familiak eta lagunek?

Flipatu zuten. Neuk ere flipatu nuen. Badakite dantza egitea izugarri maite dudala, eta honetaz lan egin ahal izatean, poztu ziren.

5 Zenbat emanaldi egin dituzu?

Oraingoan, hiru, baina abuztuari begira hamabost itxita ditugu, eta badaude beste batzuk ixteko. Lehenengo emanaldia uztailaren 20rako pentsatuta zegoen, baina ekainaren 4an izan zen, Arlegin. Lan pila egin genuen oso denbora gutxian. Baina oso gustura egon ginen. Beste taldekideak ohituta zeuden, baina bi dantzari berriak ginenez, guretzat dena berria zen. Arropaz asko aldatzen gara, urduritasuna hor zegoen ere... Baina oso ondo joan zen. Kritika onak izan genituen. Irailean Madrilgo hiri batean emanaldia dugu, eta horretarako gogoa dut, hemendik aterako garelako. Besteak etxetik nahiko gertu dira: Nafarroan, Errioxan... Baina uztailaren 20an Zaragozara goaz, Teruelera... Beste publiko bat izango da ere, esperientzia berri bat.

6 Sanferminetan ere egon zineten. Zer moduzko esperientzia izan zen?

Ikaragarria. Ezin dut hitzekin deskribatu. Eszenatokira igo eta Antoniutti osoa jendez beteta ikustea izugarria izan zen. Aurretik ez genuen imajinatzen hainbeste jende egongo zenik. Azkenean, San Fermin festak ziren eta uste nuen nire familia eta lagunak egongo zirela, baina hainbeste jende ez nuen espero; ez genuen espero plaza betetzea. 7.000 pertsona guri begira. Momentuz, emanaldirik gustukoe- na izan da.

7 Noizbait imajinatzen zenuen sanferminetan dantzan aritzea?

Ez. Ez nuen espero orkestra batean egotea, eta ez nuen espero sanferminetan dantza egitea. Gainera, horrela, plaza beteta.

8 Nolakoa da festaz festa aritzea?

Ni oraindik ez naiz ohitu. Baina esperientzia oso polita izaten ari da. Jende askok ikusten zaitu, ez da beti publiko bera izaten. Publiko guztietarako bideratuta dago, baina arratsaldeko emanaldia publiko helduagoa izaten da, eta gauean diskotekeroagoa da, eta giroa aldatzen da.

9 Nolakoa da emanaldi bat?

Ez ditut abesti guztiak dantzatzeko, ezinezkoa litzateke. Dantza egiteaz gainera, animatzaile lana egiten dugu ere. Arropa aldaketa pila bat ditugu abesti guztiak ez direlako berdinak. Hainbat bloke daude, eta bakoitzeko hainbat abesti dantzatzeko ditugu. Bi edo hiru orduko saioak izaten dira, ezin gara jarraian dantzatzeko egon. Ikuskizun bat da. Maialenek deitu zidanean esan zidan orkestra bat baino gehiago izatea nahi zuela, eta niri deitu zidan pol egiteko. Aritzek, beste dantzari batek, pol egiten du ere. Denetarik eramaten dugu.

10 Parrandarako tokia badago?

Oraingoan ez dugu egin. Lan asko da, eta asko nekatzen du. Gainera, beroarekin lan egitea tokatu zaigu, eta askoz gehiago nekatzen du. Baina izango dugu aukera.

11 Aurrerago orkestran jarraituko duzu?

Hau ikusita bai. Asko betetzen nau, oso pozik nago, eta orkestrako kideak pila bat maite ditut. Harreman oso polita egin dugu, eta aurrerago posible balitz, beraienkin dantza egiten jarraitu nahi nuke.

